

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko abenduaren 10a > Astelehena > III. urtea > 170. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Hemengo
esperientzia
Kubako egoera
ekonomikora
egokitu
dezakegu"

Georgina Perez eta
Eduardo Hidalgo
Kubako Gobernua > 06



HEZKUNTZA

Zazpi debagoiendar saritu dituzte,
ikasketa-espeditate onagatik > 04

ANTZUOLA

Kaleko argiteria arazoak ia
konpondua daude > 14

ARAMAIO

'Actto para la Noche Buena' egingo
dute datorren astelehenean > 14

PREFERENTE MAILA

Aloñak 4-2 irabazi zuen; Mondrak,
berdindu, eta UDAK, galdu > 19

KULTURA > DURANGOKO AZOKA

Ibarreko sortzaile eta lan asko egon ziren Durangoko azokan

BALORAZIOA Azokako antolatzaileak pozik azaldu dira, egun guztietan jendeak ondo erantzun duelako

MUSIKA Gosekoek eta Latzenekoek kontzertuak egin dituzte; beste hainbat talderen lanak ere salgai izan dira azokan

OMENALDIA Jesus Atxa izan zuten gogoan, azokaren lehen pausotan eman zuen laguntzarengatik > 02-03

ESKORIATZA > ISTRIPUA

Lurjausiak autobidea kaltetu zuen

AP-1eko Zarimuzko zatian, Eskoriatzan, lurjausia egon zen eguaztenean; ondorioz, bi tuneletako bat lurrez estali zen, eta besteari ere kaltea egin zion. Bidegiko arduradunak hasi dira kalteak baloratzten, baina bi aste itxaron beharko da balorazioa jakiteko. Komunikabideei ere utzi-ko diete hara joaten. > 09

18/98 > EPAI-ERABAKIA

Elkoro ondo dago, baina arduratuta

Jose Luis Elkoro etxean dago, baina lagunengatik kezka adierazi digu > 05

KIROLA > FUTBOLA

Antzuolak 3-2 irabazi zuen derbia

Bergararen aurkako partidua izan zen, aspaldiko partez > 15

G2a

Arrasate Hiria lehiaketa Ari Lehtonen finlandiarrak irabazi zuen

Lehia handia egon da 15. Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketan, maila oso altuarekin; azkenean, Ari Lehtonen finlandiarrak jantzi zuen txapela atzoko sari-banaketa ekitaldian. Bigarrena Harald Oeler alemana izan zen, eta errusiarrek hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten, Ivan Talanin-enarekin. Beste lau lehiaketako sariak ere eman zituzten. > 23-24



SARIDUNAK Ezkerretik eskumara, Harald Oeler, Ari Lehtonen eta Ivan Talanin.

JOSETXO ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 07-08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

ELKARTASUNA > AZOKAK

Bidezko merkataritza dendak daude Gabonetarako

Gabonen atarian gauden honetan, Debagoieneko zenbait elkartasun taldek bidezko merkataritza bultzatzeko dendak antolatu dituzte.

Hala, Arrasaten, Harreman gobernu kanpoko erakundeak halako denda bat ipini du, eta abenduaren 24ra arte egongo da zabalik, astegun zein jaiegune-

tan; batez ere, Hegoameriketako eta Afrikako produktuak ipini dituzte han salgai. Oñatin, Parrokiako Misio Taldeak jarriko du, ohiko lekuan, eta zapatuan zabalduko dute.

Bestetik, Bergaran, Fisc erakundeak ere zapaturako iragarri du bidezko merkataritzako postua, Kongoren alde. > 10, 11, 12

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO2 emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria
Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGON

Feel the difference

Bat nahi dut

KULTURA > DURANGOKO AZOKA

Lanean eta ikusgai, ibarreko jendea eta produktuak azokan

LIBURUAK Debagoieneko lanik gehienak Badiharduguko postuan ipini zituzten ikusteko eta saltzeko

MUSIKA Diskoak sinatzen eta kontzertuak eskaintzen egon ziren Debagoieneko musikariak Durangon

SALMENTAK Argitaletxe, diskoetxe eta elkarteetako arduradunak gustura daude harrerarekin eta salmentekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > DURANGO

Jantzi euskara zen Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azoka iragarri duen kartelaren izenburua, eta, eguraldi eskasa iragarritako zegoenez, bat baino gehiago joango zen ondo jantzita Durangora. Hala joan ginen gu ere, baina, Landakogunean, bero. Jende mordo pasabideetan; liburuak erosten, begira, kantarien sinadurak jasotzen, baita lagunekin berriketan ere.

Azokan eta inguruan, jende ezaguna, debagoiendarrak batzuk eta kultura arloko jendea ere: Martxelo Otamendi eta Xabier Amuriza, *Egunkaria aurrera!*-ren zembakia banatzen; Roberto Mosso kantari eta irrati esataria, standen inguruan; Jon Maia bertsoalaria, azokan erosketak eginda...

LIBURUAK HAN ETA HEMEN

Ibarrekoak ere, zenbait; erosten eta begira, zein standetan saltzen. *Numenak* komiki liburuaren egile Unai Busturia bisitan joan zen Durangora, eta Saure argitaletxeko standaren parean aurkitu genuen: "Esan didatenez salmentak ondo doaz. Lan berria ekarri dugu, eta jendeak gustura irakur dezan nahi dugu", esan zigun.

Debagoieneko egileen beste lan batzuk ere aurkitu genituen. Badihardugu Euskara Elkartearen standean, elkarteak berak ekoiztutako materialaz gain, Debarroko udaletakoa ipini zuten. Badiharduguko Asier Sarasuaren esanetan, "gorabehera handirik ez dugu igartzen; antzera ibiltzen gara urtero. Bergarako bandaren gaineko liburuaren ale batzuk saldu dira, baita aditz-taulen liburuxkak ere".

Mondragon Unibertsitateko postuan, Iñigo Ramirez de Okariz zegoen: "Durangora etortzen den jendeak aurrez badaki zer nahi duen, eta, gure irakurgaiak sofistikuatuak direnez, nahiago dituzte bestelako gaiak. Hala ere, garrantzitsua da Mondragon Unibertsitatearen materiala erakustea", esan zigun. Ramirez de Okarizen beste lan batzuk ere ikusi genituen, [Antzuolako uraren gainekoak](#), [esaterako](#).

18/98+ lantaldearen standean ziren Maite Aristegi eta Anaje Narbaiza, lantaldearen inguruan sortutako materialarekin: "Durangoko Azoka toki bizia da, eta jende asko gerturatu da gurea, auziaren gaineko kontuak jakin guran, eta elkartasuna adieraziz", esan zigun Aristegik.



AZOKA Zapatu goizean, Durangoko Azoka gainezka zegoen.

JOSETXO ARANZABAL

MUSIKAN, BERRIAK

Musikak ere badu lekua Durangoko Azokan, eta, musikariaren artean, gurekoak. Standetan egon ziren diskoak sinatzen, besteak beste, Gosekoak, Mutedekoak eta Governorsekoak. Ken7 taldekoen inguruan besteko jende multzorik ez zen elkartu, beharbada, euren inguruan; neska gazte asko ikusi genituen sinadurak eskatzen eta eurekin argazkiak ateratzen; Mikel Urdangarinek ere disko mordo sinatu zuen. Hala ere, gurekoak pozik ziren emaitzekin. Hala esan zigun Baga Bigako standean Muted taldeko Christophe: "Gure bigarren

lana, *Sena*, aurkeztu dugu, eta ikusi beharko da orain merkatuan nola dabilen; oraingoz, harrera ona izan du; salmentak ondo doaz, eta, gu standean gaudenez gero, ea jende gehiago animatzen den erostera!".

Standetan, batzuk, eta euren musika zuzenean eskaintzen, beste batzuk. Egubakoitzean. Latzen talde oñatiarrak. azokaren kanpoko aldean, kamioi baten gainean, ordu erdiko kontzertu pirata eskaini zuen. askoren harridurarako. Latzenek 1995ean kaleratutako maketa, *Heriotzari deika*, Durangorako berrargitaratzea izan zen kontzertuaren aitzakia.

Gosekoek domeka arratsaldean egin zuten kontzertua Plateruenan. Baga Bigako standean zegoen euren diskoa salgai, eta diskoetxeko Ritxi Aizpuruk esan zigunez, "Des-Kontrolen lanarekin batera, gure standean. Gosen lana saltzen da gehien".

Gaztelupeko Hotsak zigilupean atera du diskoa Danbakako irabazle Aby-Kem-ek. Diskoetxeko Ubane Uzinen esanetan, "gurean, arrakastatsuenak Surfing Kaos eta Petti dira, eta Aby-Kemen lanaren salmenta ere txukun doa. Azokak izan zituen gorabeherak, baina, egun, egonkortuta dago; jendea badabil".

BALORAZIOA

Antolatzaileak, pozik, jendearen erantzunarekin

Durangoko Azokaren zuzendari Jon Irazabal pozik azaldu zen, domekan, jende aldetik izandako erantzunarekin, eta egun guztietan jende asko egon delako.

Jende kopurua erosketekin lotuta egon dela esan zuten Editoreen Elkarte eta diskoetxeetako ordezkariak. Biek ala biek urte ona izan dela azpimarratu zuten. Modu positiboan baloratu dute, liburuetan eta diskoetan, aurten, salmenta handi bakar bat ez egon izana, salmenta ere zabaldu egin dela agerian utziz.

Durangoko Azokak antolatutako bestelako ekitaldiek izan duten erantzun ona ere azpimarratzea dela esan zuten. Elkartegian egiten diren ikuskizunen aldeko apustua sendotzen hasi dela gaineratu zuen Jon Irazabalek: "Gero eta jende gehiago parte hartzen du hango saioetan. Azokaren alde ludikoa eta serioagoa uztartzeko aukera ematen du, eta bide horretan sakontzeko jarraituko dugu".

OMENALDIA

Bestelako ekitaldiek ere izaten dute lekua azokan. Pello Zabala, Imanol Lazkanorekin batera, *Hemen Jaungoikoari ere barre* izenburupean Elkartegian egindako mahai-inguruan egon zen.

Leku berean, Elkartegian, *Lagunak gogoan* omen ekitaldia izan zen egubakoitzean. Omen duen artean, Jesus Atxa aretxabaletarra. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka izango zena prestatzeko lehen pausoa ematen lagundu zuen, eta, beste leku batzuetan ere, liburu eta disko azokan antolatzaile ere ibili zen. Urrian hil zen Atxa, 87 urte zituela, eta bere lana eskertu nahi izan zuten Durangon.

Liburuak eta diskoak, salmentak eta erakusketak, kontzertuak eta sinadurak, mahai-inguruak eta omenaldiak... denetarik izan da egunotan Durangon. Datorren urtera bitartean, erositakoak irakurtzea edo entzutea tokatuko zaie batzuei; lan berriak ekoizten eta gertatzen jarraitzea, beste batzuei. Izan ere, euskara eta euskal kultura janzteko bide bat da Durangoko Azoka.

ESANAK

"Gure irakurgaiak sofistikuatuak dira, baina garrantzitsua da unibertsitateko materiala hemen erakustea"

Iñigo Ramirez de Okariz > MU

"Sena' lana kaleratu dugu, eta ikusiko da merkatuan nola dabilen; Durangon, behintzat, harrera ona izan du"

Christophe Tytgat > Muted

"Gure standean, Arrasateko Des-Kontrol eta Gose taldeen disko berrienak saldu ditugu gehien"

Ritxi Aizpuru > Baga Biga

DURANGOKO AZOKA, IRUDITAN



Asier Sarasua, Badiharduguko standean. J.A.



GOIENKARIA, Topaguneko postuan. JOSETXO ARANZABAL



Goseren kontzertua Plateruenan. DURANGOKOAZOKA.COM



Oskar Aranaren itzulpen lana. JOSETXO ARANZABAL



Jesus Atxa aretxabaletarra omendu zuten *Lagunak gogoan* ekitaldian. DURANGOKOAZOKA.COM



Mondragón Unibertsitatea, azokan. J. ARANZABAL



Antton Mari Aldekoa-Otalora, Imanol Lazkano eta Pello Zabala, mahai-inguruan. DURANGOKOAZOKA.COM



Unai Busturia, *Numenak*, eskuetan. J. ARANZABAL



Anaje Narbaiza eta Maite Aristegi, azokara elkartasuna eramanez. J.A.



Arantzazukoak, egutegi eta bestelakoekin. JOSETXO ARANZABAL




Latzenek kontzertu *pirata* egin zuen. AITZIBER ARANBURUZABALA



AZKARATE
aroztegia



*Arotz lanetan
behar duzun guztia*



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak

Ambrosio Goikoetxea > Irakaslea eta ikertzailea

"XXI. mendean Euskal Herria estatu izateko bidea eta prezioa azaltzen dut"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Biasteriarra izatez, AEBetan 45 urtean bizi izan zen Ambrosio Goikoetxea ingeniari eta irakaslea, 2004ra arte; orain, Mondragon Unibertsitatean irakasten du. *Euskal Herria Estado-Nacion en el Siglo 21* liburua idatzi du, eta egubakoitzean aurkeztuko du, Kulturaten, 19:30ean. Izan ere, bere esanetan, "politika garrantzitsuegia da politikoaren esku bakarrik uzteko".



Ambrosio Goikoetxea.

GOIENKARIA

Zelan bururatu zitzaizun liburu hori idaztea?

Urte askoan, sistema eta informatika ingeniari lan egin dut. Teknologia berriak eta ingeniari-rizako lan egiteko modu onak gizarte, ekonomia, ingurumen eta politikako arazoetara aplikatzen ikasi dut. Azken bost urteotan, Euskal Herriaren ikerketa historikoa egin dut, bere gatazka politikoa arrazoiaren, eta XXI. mendean Euskal Herria aske, subiranoa eta independentea izateko bidea azaldu dut.

Zelako lana izan da?

Oso luzea eta zaila, baina pozgarria ere bai. Zaila izan da, azken 25-30 urteotako EAJko liderrek gatazka konpontzeko benetako interesa zutela uste nuelako, eta, aldiz, lider horiek subiranotasunaren eta independentziaren alde daudela esan, baina, bestetik, Espainiako Esta-

ez bezala. Teknologia berri eta patente oso-oso gutxi dago, eta desoreka horrek hemengo unibertsitateek eta enpresek ikertzeko duten gaitasuna eta Europako Batasunekoekin egin ditzaketan sinergiak arriskuan jartzen ditu. Hala, Suediak 150 patente sortzen ditu milioi biztanleko; Espainiak eta Euskadik, aldiz, bakarrik bi. Bitartean, euroa igotzeak gure produktuak gero eta garestiago egiten ditu.

AEBetan luzaroan bizi izanak ikuspegi berezia eman dizu?

Ikuspegi praktikoa eman dit. Gauza askok prezio bat dute. Nire liburuak Euskal Herriak datozen bederatzita hamarkadetan estatu-nazio bihurtzeko izan ditzakeen bide demokratikoak, prezioa eta baldintzak aztertzen ditu, ekonomia eta nazioen komunitate global baten.

EAJrekin oso kritikoa zara...

EAJk, 1977an, hauteskundera aurkezte erabakitzen du, Euskadiko Autonomia Estatu-tua onartzeko, eta hori Espainiako Estatuarekin kontratu bat sinatzea zen. Geroztik, batetik, EAJko liderrek Estatuarekin hitzarmen eta pribilegiozko tratu baten sartzen dira; bestetik, Estatuarekin batera, ezker abertzalea politikan ezeztatu nahi dute, Euskal Herrian gertatzen

"EAJk gatazka konpondu nahi zuela uste nuen, baina Estatuarekin konpromisoa du"

"AEBetan bizi izanak ikuspegi praktikoa eman dit; gauza askok prezio bat dutela ikasi dut"

tuarekin konpromisoa dutela aurkitu dut.

Beste gauza oso esanguratsu bat: ez daukagu ikerketa politikarik, Eusko Jaurlaritzak dioen

HEZKUNTZA > SARIAK

Ibarreko zazpi saritu ditu Kutxak aurten, ikasketa-espeditente onena izateagatik

Aurten, 31. ekitaldia izan dute Ikasketa Bukaerako Sariak, eta ibarreko zazpi ikasle saria jaso dute; denetara, 42 izan dira

L.K. > BERGARA

Gaztekutxak aurten eman dituen 31. Ikasketa Bukaerako Sarietatik zazpi debagoiendarrendako izan dira. Azaroaren 27an eman zituzten sariak, denetara, 42, eta

honakoak izan ziren saridun debagoiendarrak: Maialen Zabala, Maite San Vicente eta Maite Barandiaran arrasatearrak, Maitane Barrenetxea aretxabaletarra, Maria Peralta oñatiarra, Rachael Olabarria bergarra eta Iruñe Manzisidor antzuolarra.

Bestalde, aurtengo 42 saridunetatik 17 Mondragon Unibertsitateko ikasleak ziren.

GIPUZKOARRENTZAT SARIA

Sariok urtero ematen ditu Kutxak, 1976. urteaz geroztik; beroietara, Gipuzkoako fakulta-

te edo goi eskola teknikoek euren ikasleak aurkez ditzakete, betiere, Gipuzkoan jaiotakoak edo azken sei urteotan Gipuzkoan bizi izan direnak. Azkenean, Kutxak, aurkeztu direnen artean, fakultate eta goi eskola tekniko bakoitzeko, ikasketa bakoitzean espeditente onenak izan dituzten ikasleak saritzen ditu.

Lizentziadunek, ingeniariak eta arkitektoak 1.350 euroko saria eta diploma jasotzen dituzte, eta diplomadunek, ingeniari teknikoak, arkitekto teknikoak eta maisuek, 1.050 euroko eta diploma bana.

KOOPERATIBISMOA

MCCrako proiektuak aztertu zituzten

L.K. > ARRASATE

Ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren inguruko hainbat nazioarteko ikertzaile Mondragon Unibertsitatean bildu ziren martitzen eta eguaztenean, Mondragon Unibertsitateak ekonomia eta estrategia ikertzeko bultzatutako lehenengo topaketan. Helburua zen MCCko esperientziari buruz ikertzea eta informazioa hedatzea.

Mundu osoko 15 ikertzaile Mondragon Unibertsitatean elkartu ziren. Sei ikertzaile europarrek, hiru amerikarrek eta Mondragon Unibertsitateko bostek osatu zuten aditu-taldea, eta mugimendu kooperatiboan norantz jo aztertu zuten. Ikerketarako bide orokorrak eta proiektu zehatzak aztertu zituzten, lehenengo, MCCko kooperatibetara zuzenduta, eta gero, beste enpresa batzuetara zabaltzeko.

Mondragon Komunitate Akademiko Kooperatiboa (MKAK) izeneko sareak bultzatu zituen jardunaldiok.



LEIRE KORTABARRIA

Euskal egutegiaren aldeko mobilizazioak

Espainiako Konstituzioaren egunean, joan den egunean, horren aurka eta euskal egutegiaren alde mobilizatu ziren hainbat gazte, Ikasle Abertzaleak eta Euskal Herriak Bere Eskolak deituta. Hala, Bergaran, esaterako, herri eskolak egin zituzten gatzetxean, eta kale-bilkura egin zuten segidan. Bestalde, Arrasateko Udalak, adibidez, lan egin zuen egun horretan.

Saridun debagoiendarrak

	HERRIA	UNIBERTSITATEA	IKASKETAK
Maialen Zabala Alvarez	Arrasate	Euskal Herriko Unibertsitatea	Zuzenbidean lizentziaduna
Maite San Vicente Urkia	Arrasate	Euskal Herriko Unibertsitatea	Pedagogian lizentziaduna
Iruñe Manzisidor Telleria	Antzuola	Mondragon Unibertsitatea	Industria Antolakuntzan ingeniaria
Maite Barandiaran Altuna	Arrasate	Mondragon Unibertsitatea	Industria Antolakuntzan ingeniaria
Maitane Barrenetxea Carrasco	Aretxabaleta	Mondragon Unibertsitatea	Telekomunikazio ingeniaria
Maria Peralta Aritza	Oñati	Mondragon Unibertsitatea	Kudeaketa Informatikoan ingeniari tek.
Rachael Elaine Olabarria Murphy	Bergara	Mondragon Unibertsitatea	Hezkuntza Berezi irakaslea

UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armaruak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

18/98 AUZIA > ERABAKI JURIDIKOA

Jose Luis Elkorro: "Ondo nago, baina lagunengatik kezkatuta"

Behin-behineko askatasuna erabaki zuen epaileak; epaia irmoa izan arte, hala jarraitu ahal izango du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Jose Luis Elkorro, 18/98 sumarioan auziperatutako hiru debagoien-darretako bat, etxean dago, Bergaran, eguaztenean Espainiako Guardia Zibilak atxilotuta Madrilera eraman eta, egubakoitzean, Auzitegi Nazionalako epaileak behin-behinean aske uztea erabaki ondoren. Egubakoitz iluntzean, etxean zen, eta, zapatu gauean, ongietorri ekitalditxo egin zioten. Elkorro ASTELEHENEKO GOIENKARIAri hauxe esan zion: "Ondo nago, baina, bestalde, kartzelan dauden lagunengatik ardu handia dut; lur jota gaudenean ere, gure animua zapaldu nahi dute. Jakin dut senideek ondo ikusi dituztela, eta horrek indarra eman dit, baina, hala ere, ez zaizkit burutik kentzen".

Osasun arazoengatik utzi zuten Elkorro fidantzarik gabe aske. Epaia abenduaren 19an ira-



ONGIETORRIA Elkorro aureskua dantzatzen, zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

kurriko dute, baina behin-behinekoa izango da; epaia irmo egin arte, Elkorro aske jarraituko du, epaimahaiak besterik ez badu erabakitzen.

Bestalde, Xabier Arregi auziperatu bergararraren senideek salatu dute, joan den domekan, Soto del Realgo kartzelara bisitan joanda, bisitarik ezingo zutela egin esan zietela, Arregi Alcalá Mecora eraman berri zutelako.

LANUZTEA EGUENEAN

Datorren egunerako, ordu beteko lanuztea deitu dute lantoki guztietan, 18/98 auzia eta atxilotak salatzeke. Debagoieneko 18/98 + lantaldeak dei berezia egingen die debagoien guztiei lanuztea egiteko, "auzia izan den irregularitasun prozesua eta bizi izan ditugun gertakari larrien aurrean" gizarteak erantzun bat eman ahal izateko.

HEZKUNTZA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Iñaki Larrea, 1. doktorea HUHEZiko tesi programan


HUHEZIn orain lau urte hasi zen doktore tesi programako lehen doktorea arrasatear bat da

L.K. > ESKORIATZA

Joan den eguaztenean, Iñaki Larreak bikain *cum laude* kalifikazioa lortu zuen bere doktore tesia, 0-3 urteko haurraren garapena eta eskola delakoa, HUHEZI fakultatean aurkeztu zuenean. Egun berezia izan zen HUHEZIn, Larrea delako lehen doktorea orain lau urte hasitako doktore tesien programan.

Entzule asko izan zituen Larreak tesi aurkezpenean, eta epaimahaikideak: Luisa Reizabal EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea izan zen epaimahaiburu; bere ondoan, Rafael Cristobal HUHEZiko irakaslea, Fernando Olabarrieta EHUko Psikologia Fakultatekoa, Jose-rra Vitoria HUHEZikoa eta Iñaki Gartzia, hau ere HUHEZikoa. Entzuleen artean, Alexander Barandiaran egon zen, irakaslea eta tesi horren zuzendaria.

Ikerketa lana egiteko, Larreak EAEko 0-3 urte arteko 875 ume aztertu zituen, 62 ikasgelatan banatuta. Ondorio nagusi bat atera du: erlazio estua dagoela eskolaren kalitatearen eta umearren garapenaren artean.



Iñaki Larrea.

GOIENKARIA

Epaimahaikideek goratu egin zuten Iñaki Larreak egingo dako lana, eta aho batez erabaki zuten beroni bikain *cum laude* kalifikazioa ematea.

PSIKOPEDAGOGOA

Iñaki Larrea arrasatearra da. 2001. urtean, Hezkuntza Berezia diplomatu zen; 2003. urtean, Psikopedagogian lizentziatu zen, eta harrezkero, Hazitegi proiektuan egin du lan, Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker. Doktore tesi hori, hain zuzen ere, Hazitegi proiektuan kokatzen da.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

IGNIS

ICF 511 (85x163x66) cm 425 € 70.975 pta
ICF 411 (85x134x66) cm 350 € 58.450 pta
ICF 331 (85x112x66) cm 310 € 51.770 pta
ICF 271 (85x85x66) cm 285 € 47.595 pta

BERMEA 2 URTE

1.700 X 600 X 600 mm

A Saillapen energetikoa

HOZKAILUA 4FE-0E41

295 € 49.265 pta **LYNX**

BERMEA 2 URTE

1.000 b/min 5 kgr.

A Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA LA-110

305 € 50.935 pta **aspes**

BERMEA 2 URTE

1.200 b/min 7kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA E12-17

425 € 70.975 pta **SIEMENS**

BERMEA 2 URTE

LABEA BITROZERAMIKA STA1410

LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA

335 € 55.945 pta **aspes**

BERMEA 2 URTE

TELEBISTA PHILIPS LTD (TDT) INTEGRATUA LCD 26" PFL5522D

595 € 99.365 pta

LCD 42" PFL5522D

1.075 € 175.350 pta.

BERMEA 2 URTE

TELEBISTA SANYO LTD (TDT) INTEGRATUA LCD 26" CE26LD81 - C

650 € 108.550 pta

LCD 32" CE32LD81 - C

685 € 114.395 pta.

"VERO" MAHAIA 110x70 cm, zabalgarria 160x70 cm-ra

450 € 75.150 pta

Fagor Eko-igorle elektrikoak

	ED	E
(610x1.060x95) mm	370 €	345 €
(610x910x95) mm	330 €	310 €
(610x760x95) mm	295 €	270 €
(610x610x95) mm	255 €	230 €
(610x460x95) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala
E: Elektroniko, eskuzkoa

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kubako azukre kanaberaren sektorea krisian dago. Mundukide fundazioak Kubarekin elkarlanean dihardu arazoari irtenbidea topatzeko. Ondorioz, Kubako Azukrearen Ministerioarekin formazio programa bat dauka martxan. Programa horrek hemengo kooperatiba sistema dauka oinarri. Gai horren inguruan, bi kubatarrekin hitz egin dugu.

Georgina Perez eta Eduardo Hidalgo > Azukre Ministerioko arduraduna eta proiektu bateko liderra

"Hemengo esperientzia Kubako egoera ekonomikora egoki dezakegu"

JASONE ZABALA > OÑATI

Georgina Perez eta Eduardo Hidalgo kubatarrek dira. Lehena nekazari industriaren enpresa kudeatzaileratzen da, eta bigarrena, aurrera eramango den ACPA-animalia produktorako Kubako elkartearen proiektuko kidea da. Debagoiengan egon dira, kooperatibismoak nola funtzionatzen duen ikusten, Kuban egokitzeke.

Zertan datza Mundukide fundazioaren eta zuen arteko elkarlan eta prestakuntza programa?

Georgina Perez: Mundukidearekin egiten dugun elkarlana bi helburutan oinarritzen da: alde batetik, Kubako birmoldaketa garapenean laguntza ematea, azukrearen industriak utzi duen hutsunea betetzeko, batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza arloetan. Horretarako, Euskal Herriko ereduetan oinarritu gara. Horregatik, Debagoieneko egoaldian bi ministerio etorri gara: azukrearena, bat, eta nekazaritzarena, bestea. Ministerio horien helburua aktibitate ekonomiko berrietarako jendea prestatzea da; lehen kanaberek lantzen zituzten lursailak abeltzaintzara eta nekazaritzara bideratzea. Horretarako, ekinzailtza oinarri moduan hartzen da. Bestalde, kooperatibismoaren esperientzia oinarri hartuta, aktibitate ekonomiko berriak sortzeko jendea prestatzea da beste helburua.

Horrela, hemen lortutako esperientzia Kuban dugun egoera ekonomikora egoki dezakegu, esan bezala, aktibitate berri horien garapena sustatzeko, hainbat lan metodologia ikasita.

Zein da azukre industriaren birmoldaketaren gaur egungo egoera?

G.P.: Gaur egungo egoera hobekuntza aldia da. Horregatik, Debagoienara etorri gara, formazioa jasotzera.

Azukre industria asko ixten hasi ziren, momentu hartan ez zirelako emankorrak. Hemendik aurrera, lanpostu gehiago sortzeko, hainbat laguntza ekinza egin dira. Hemendik aurrera, industria enpresenganako hobekuntza eta eraginkortasun etapan gaude. Horrekin, gizartearentzat onak izango diren aktibitate ekonomiko berriak sortuko ditugu, lan barik gelditu direnentzat. Hori lortzeko, badaukagu nahikoa ahalmen eta



Argazkian, Georgina Perez eta Rafael Hidalgo, Oñatiko Ulmako bulego nagusien sarreran.

JASONE ZABALA

ELKARLANA

"Mundukide fundazioa Kubarekin elkarlanean dabil, arazoari irtenbidea topatzeko"

ONDORIOAK

"Esperientzia oso positiboa izan da; hainbat sektoretan emaitza onak lortzen dabilzan kooperatibak ikusi ditugu"

AKTIBITATE EKONOMIKOAK

"Zentroko aktibitate berrien garapenean laguntzea da helburu nagusia"

badaude, baina ez genuen ulertzen orain arte beste sektore batzuetara ere eramateko aukera hori zegoenik.

Zeintzuk dira zentroak aurrera eramaten dituen helburu eta funtzioak, aktibitate ekonomiko berriak bultzatzeko?

E.H.: Aktibitate ekonomikoak aurrera eramateko zentroaren gunea Olgineko probintzian dago, Kuban. Haren helburu nagusia erakundeen eta bertan dauden langileen artean zentroko aktibitateen garapenean laguntzea da.

Haiek aholkuak ematen dizkiete bertan sor daitezkeen negozioarako bide berrien sustatzailei, eta aurrera ateratzen laguntzen diete.

Zortzi aktibitate ekonomiko berriren garapenean zabilzate lanean. Zein motatako proiektuak dira eta non kokatzen dira?

Eduardo Hidalgo: Bi proiektu ahuntz ustiapenera zuzendutakoak daude; beste bi, txerriekin eta beste okela mota batzuei zuzendutakoak; beste bat, fruta eta landareen kontserbazioari zuzendutakoak; beste bi banbuarekin daude erlazionatuta, egur produktoria bideratuta; eta beste bat, nen zuhaitzaren prozesuari zuzendutakoak.

Beste proiektu bat juka tuberkuluaren prozesuari lotutakoa da; Kuban asko erabiltzen da, animalien pentsuak egiteko.

Zuen ustez, aktibitate berriak bultzatzeko zentro hori baliagarria izan daiteke Kuban aktibitate ekonomiko berriak sortzeko?

E.H.: Hori da helburu nagusia, zentro horrek aholkatzeko eta laguntzeko balio izatea: hainbat erakunderen bitartez, negozioarako ideia asko aurkeztea eta haiei laguntza hori ematea aurrera eramanez ahal izateko.

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Benito Lertxundiren emanaldirako sarrerak

Orioko abeslariak hilaren 22an egingo duen emanaldirako sarrerak salgai jarri dituztela jakinarazi du Udaleko Kultura zerbitzuak. Sarrerok kultura etxean daude salgai, 10 eurotan; leihatilan, 12 eurotan. Kultura etxeko ordutegia astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00 eta 16:30-20:30 da.

OÑATI

> Zubikoako aparkaleku itxietarako eskariak egin daitezke hilaren 27ra arte

Kiroldegia handitze-ko lanen barruan, lur azpian eraikitako gara-jeetatik 13 itxiak dira. Herri jabetzako lurretan jasotako eraikinak direnez, ezin dira saldu; hortaz, Udalak 50 urterako esleitzea erabaki du. Garajeok eskatzeko, herrian erroldatuta egon behar du azken urtean, eta turismo baten jabe izan behar du.

BERGARA

> Abenduaren 12an, Gabonetako argiak piztuko dituzte

Erdigunean eta eraikin esanguratsuetan piztuko dituzte. Urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta.

ARRASATE

> Ezkontza zibilerako izenematea, BAZen

Ezkontza zibila egin gura dutenek BAZ bule-

goan eman behar dute izena aurrerantzean. Ezkontza eguna kontuan hartuta, gehienez 12 hileko aurrerapena-ekin egin ahal izango dira eskaerak. Horretarako, ezkontideen eta lekuko nortasun agiriak aurkeztu beharko dira. Bestalde, BAZeko arduradunek gogorazi dute ezkontza espediente Erregistro Zibilean, Bake Epaitegian, tramitatu behar dela.

BERGARA

> 1989ko kintoez bazkaria egingo dute

1989koek batera bazkaltzeko aukera izango dute. Abenduaren 24an egingo dute bazkaria. Hitzordua 08:30ean egin dute, Zabala jatetxe parean, eta handik kantuan abiatuko dira erdigunerantz. Izenematea abenduaren 12ra arte dago zabalik. Horretarako 25 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

Dirua sartzean, komeni da norbere izen-abizenak zehaztea.

ARRASATE

> Zahar Berrik antolatutako duen afarirako izenematea zabalik dago

Udal Euskaltegiaren eta AEKrekin batera, afaria antolatu du Zahar Berrik, abenduaren 14rako, Uarkapen. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 77 12 28 telefono zenbakira.

BERGARA

> Jardun elkarteak koordinatzailea behar du

Berriketan proiekturako eta haurren euskararen erfortzuetarako koordinatzailea behar ditu Jardun euskara elkarteak. Zortzi orduko jarduna da. Beharrezkoak dira euskaraz jakitea eta harremanetarako erraztasuna izatea. Interesatuak Jardun elkartera (Errotalde jau-regia, z/g, 20570 Berga-

ra) bidali behar dute curriculum, hilaren 23a baino lehen. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 36 61 zenbakira.

DEBAGOIENA

> Txikilandiarrak begiraleak behar ditu Txatxilipurdi elkarteak

Urtarrilaren 2tik 5era ospatuko da Txikilandia Arrasaten, eta harako dei egin du Txatxilipurdik. Interesatuak izena eman dezakete Txatxilipurdin. 18 urtetik gorakoak izanez gero, bidali edo eraman curriculum eta argazkia elkartearen egoitzara (Pablo Uranga 4). Informazio gehiagorako, deitu 943 79 54 46 zenbakira.

BERGARA

> 1982koek bazkaria egingo dute

Abenduaren 15ean, bazkaria egingo dute 1982. urtekoek, Agorrosinen. Izenematea abenduaren 10a baino lehen egin behar da. Horretarako, 30 euro sartu behar dira Banco Santanderreko honako kontu zenbakian: 0049 5397 862895130005.

BERGARA

> 1983ko kintoez bazkaria egingo dute

Abenduaren 22an egingo dute, Tartufon. Izena emateko azken eguna abenduaren 14a da, Euskadiko Kutxan (3035 0009 1400 90081141), edo 630 40 62 89 zenbakira deituta.

etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika arduraduna

Azoka batetik bestera, euskal artaldean

Aste bukaera luze honetan, ikusi dut gizakioi jende artean egotea gustatzen zaigula. Jendea nora, hara joaten gara beste guztiok ere.

Egubakoitzean, hurrengo bi egunak jai zirela-eta, etxera bueltan, saltoki handi batera sartu ginen, pare bat gauza erostera. Benetan diotsuet hark munduaren azkena zirudiela. Jendea erosi eta erosi ari zen, izurriteren bat baletor moduan. Eta jendearen antsietate horrek zu kontagiatzen zaitu. Tomate pote bat erosi beharrean, bi erosten dituzu; kilo bat arroz erosi beharrean, hiru erosten dituzu... Dudan nago orain jende multzo hori guztia ez ote duten saltokioek beraiek jarriko, histeria kolektiboa sortu eta guztiok behar baino gehiago eros dezagun.

Zapatuan, Durangon izan ginen, azokan. Sartu eta berehala, tontotuta geratu nintzen jendeari begira, eta halaxe eman nuen azokatik buelta, jendearen atzetik, erakusmahaietan zegoenari asko erreparatu barik. Aurretik pentsatutako lau gauza erosi nituen ordu bete eskasean, eta kanpora, jende masaren atzetik. Bateren bati okurritu zitzaion euskaldun irudia ardia zela, eta halaxe ibili ginen, artaldean.

"Lau gauza erosi nituen ordu betean, eta kanpora, jende masaren atzetik"

> Durangoko azokan, harridura geratzen naiz euskaraz zenbat gauza argitaratzen diren ikusita. Eta urtero egiten diot nire buruari galdera: horiek denak kontsumitzeko adina euskaldun bagara?

> Azoka ez zaidala gustatzen irudituko zitzaion bateren bati, baina gustuko dut. Urtero joaten naiz, eta euskarazko produktu originalak moduz erosteko eta ikusteko aukera ona da.

debagoiendarrak kanpoan

Ane Miren Manzidor > Antzuola

"Antzuolarekin alderatuta, aukera gehiago eskaintzen ditu hiriburuak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Ikasketak zirela eta, Donostiara joan zen Ane Miren Manzidor bizi izatera eta, gaur egun ere, bertan bizi da, etxekoekin. Hiriburuak eskaintzen dituen aukera zabalekin gustura dagoela esan digu; orain, Donostia dela bere etxea.

Noiz eta nolatan joan zinen Donostiara bizi izatera?


Orain dela hamar urte inguru etorri nintzen. Etxea geneukan Donostian, eta, hasieran, asteburuak pasatzera etortzen nintzen, noizean behin lehenengo, eta sarriago, gero. Ondoren, kimika ikasketak egiten hasi nintzen, Donostian bertan, eta aste barruan ere bertan geratzen nintzen, bakarrik. Denborarekin, bertakotu egin naiz, eta hemen dut orain bizilekua.

Antzuolatik Donostiara joatea aldaketa handia izan zen?

Sarritan etortzen nintzen Donostiara egunak pasatzera, hortaz, aldaketa ez zen oso handia izan niretzat; berehala ohitu nintzen. Hala ere, bada ezberdintasunik. Izan ere, Antzuola bezalako herri txiki batekin alderatuta, aukera gehiago dago hirian: zinemara joateko aukera asko; merkataritza, mendia eta hondartzak bertatik bertara dauzkagu, nahi izanez gero; lan aukerak ere gehiago dira, baita ikasteko aukerak ere...

Gaur egun, zertan diharduzu?

Kimika ikasketak amaitu eta gero, enpresa batean egin nuen lan. Gero, erabaki nuen doktoretza ikasketak egitea, eta, gaur egun, horretan dihardut.



Ikastera, Donostiara

Kimika ikasketak egitera joan zen Donostiara. Gaur egun, doktoretza ikasketak egiten dihardu.

Antzuolara etortzeko joerarik baduzu?

Ez, ez naiz apenas joaten; inoiz bai, baina oso gutxitan. Bizimodua Donostian egiten dut, eta oso gustura bizi naiz, gainera. Hona etorri eta hasieran, Antzuolara maizago joaten nintzen, jaietara, Gabonetan... baina, lan kontuengatik edo Donostiari urte osoan barrena eskaintzen dituen aukerengatik, Antzuola pixka bat ahaztuz joan nintzen. Lagunekin ere, antzera gertatu zitzaidan.

Dena dela, behin edo behin, Antzuolan edo Donostian, ume-tako lagunekin topo egin izan dut, eta beste lagun berri eta elkarren berri eman izan diogu elkarri. Hala ere, argi daukat Antzuolara ez nintzatekeela bueltatuko bizi izatera.

Antzuolako jendearekin harremana oraindik badaukazu?

Familiakoekin, bai, baina gaitz nontzean, ez. Lagunak, eskolan nirekin ibili zirenak, Antzuolan daude batzuk, baina ez naiz eurekin egoten. Orain, hemen daukat lagunak, donostiarrak, eta hemen moldatzen naiz ondoen. Hemengo eta Antzuolako jendearen artean, ezberdintasun handirik ez dut aurkitu.

Donostiara bisitan joaten direnei, zer gomendatzen diezu?

Hiriko giroaz gozatzeko. Aprobetxatzeko aste bukaeretan egoten den giroa; batean zein bestean ondo jateko dauden aukerak ere aprobetxatzeko modukoak dira. Bestalde, hemengo paisajek, denok ezagutzen ditugunak, gozagarriak dira.

kale inkesta

Gabonetako argiak, zuhaitza... jartzea ondo iruditzen zaizu? Gustatzen zaizkizu?



Flor Mari Peña
Langilea
Oñati

Ondo iruditzen zait herria apaintzea; argiekin, kaleak txukun ipintzen dituzte. Gainera, polita izaten da Gabonetan sortzen den giroa. Etxea apaintzeko ohitura izaten dut; baina, aurreten, ez dut ezer jarriko.



Antonio Zabarte
Erretiratua
Oñati

Ederto iruditzen zait herria apaintzea; kaleetan jartzen dituzten argiak gustatzen zaizkit, eta baita plazako zuhaitza ere. Polita izaten da Gabonetan herriko kaleek izaten duten itxura eta giroa.



Ines Laubree
Langilea
Oñati

Bai, gustuko izaten ditut jartzen dituztenak; herria polit geratzen dela iruditzen zait. Hala ere, uste dut argi gutxiago ipinita, energia aurreratu genukeela. Hor-taz, akaso, kontuan hartzeko gaia dela uste dut.



Andreu Capdevila
Langilea
Oñati

Bai, gustuko izaten dut nola geratzen diren herriko kaleak eta plaza. Giro polita sortzen dute argiek Gabon egun horietan. Ez dut uste argi larregi jartzen denik; beharrezkoa besterik ez da jartzen.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Denda batzuk, itxita egubakoitzean

Oñatiar batek kexu hau helarazi digu: "Hainbat errekadu nituen egiteko, eta egubakoitzean, hilak 7, horiek egiteko irten nintzen. Hara ze disgustua hartu nuen, premiazkoak nituen denda batzuk itxita topatzean! Egubakoitzea ez zen jaieguna, eta jendeak aprobetxatzen du erosketak egiteko, baina denda askok ez dute zerbitzu ona ematen. Merkatariek jai hartu gura badute, har dezatela, baina ez daitezela kexatu jendea kanpora joaten bada erostera!"

BERGARA

> Euria egiten duenean, kultura etxera ezin daiteke joan

"Hilabete heze eta euritsu hauetan, kultura etxera joan behar dudak bakoitzean, ia-ia mendiko botak ipini behar ditut, izan ere, hesitik atera arteko bidea lokatzaz beteta egoten da, eta putzu txiki-josita. Badakit kultur etxera lekuz aldatu nahi dela, baina horrek luze joko duenez, bitartean, ez dugu merezi bide txukunago bat?", diosku Bergarako irakurle batek.

BERGARA

> Edukiontzien ez dute oinezkoak ikusten uzten

Bergarar batek hau diosku: "Konturatu naiz Ibargaraiko zaborren edukiontzien oinezkoen pasabideekiko oso gaizki daudela kokatuta. Izan ere, gidatzen doanak, bertan egon arte, ezin du ikusi espaloian inor dagoen pasatzeko zain, edukiontzia parean dago eta. Eta, oinezkoari ere, traba egiten diote".

usteak uste

Maier Uranga

Usteak beti erdi ustel

Usteak uste eta beti erdi ustel. Hasten denean, hazten uztea ustelago orduan. Usteltzen deneko ustea, uste nuenaren ustela, uste dutenaren bestea. Urtea amaitzen ari denaren ustea, hobe izango denaren uste ustela.

Zapatero eta Sarkozy, Aznar eta Chirac... elkarlanean denak, lorez jantzi du batak bestea. Badela garaia iruditzen zait, badela ordua. Urteak daramatza gu berean, gurea dena esperoan, espero ustelean. Atxiloketak, tortura eta errepresioa, AHT eta sekula amaituko ez duten autobidea! Pailazoz jantziko gaituztela zenbat apostat?

Lan uzteak, kale agerraldiak eta manifak. Zertarako baina? Zergatik ez goaz denok zortziretan Boulevardera? Egin deigun, bada, bertan urteko azken danborrada!

zorroztailea



Markos Balentziaga

PISAren pisupean

"Euskal ikasleek gero eta gutxiago dakite Zientzietaz, Matematiketan lehengo antzera jarraitzen dute eta munduko batezbestekoaren azpitik daude irakurketa ulermenari dagokionean. Horiek dira PISA 2006 txostenaren ondorio nagusiak, OCDE erakundeak eginda".



Noticias de Gipuzkoa >
2007-12-08

Derki famatuta dabil European zihar 2006ko PISA txostena edarki famatuta dabil European zihar. Txosten horrek OCDE-ko estatuetako hamabost urteko estudiantien gaitasunak neuritzen ditu eskola-trebetasunetan.

Batenaz beste, Euskal Herriaren Hegoaldian hamabost urteko neska-mutikuak ez dira planta txarreko ikasleak. Xehetasunei erreparata, baña, bada zer zuzendurik: irakurten dabena ulertzen ikasi biharra dauke, berbarako, orain ez dabe ondo egiten eta.

Eta horretzek harrotu dau hautsiek haundixena aditu, alderdi, politikari eta sindikalisten artian.

Arazuak irakurketa bat baño gehixago dauka, emoten dabenez, eta ez da hain erreza ulertzen... zergatik ez daben ulertzen irakurten dabena estudiante-jendiak.

PISA txostenaren salaketa serixua da. Irakurri eta ulertu eziñ. Ezer ulertzeko, baña, lehen-lehenik irakurri egin bihar. Hor dago lehen koskia.

Egin daigun kontu. Edozein egunetan, goiz-arratsaldetan eskolan jardun ondoren, etxera iritsi eta merienda jan, futbol-edo eskubaloio-edo atletismo-entrenamenduenak bete, musika eskolatuak tonuan ipini... etxeko lanak osatu eta... ezer luze samarrik arretaz irakurteko moduan egon leike hamalau-hamabost urteko gaztetxo bat?

Ez da nekeza ulertzen irakurle batek ezer ulertuko badau, lehen-lehenik, irakurtzeko ohiturria bihar dabela, egin klik hemen erako testuak baño luziaguak irakurteko ohiturria.

Eta matematikak, zientziak, hizkuntzarenak, historiarenak, ordenagalluko jokuak... Horrek danak be euren denboria eskatzen dabe! Eta telebisituak!

Konponbidia ez da erreza izango, baña zeozertxo aldatu biharrin gara, gure gazte-jendiak irakurri eta irakurritakua ulertu dagian. Mirari-konturik ez dago hemen.

"Neska-mutikuek irakurten dabena ulertzen ikasi biharra dauke"

"Irakurle batek ezer ulertuko badau, lehenik, irakurtzeko ohiturria bihar dau"

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Maier Uranga Oinarritza diseinua Goto Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Atzerrian bizi den emakume baten gaineko klown emanaldia egingo dute eguenean > 10



> **BERGARA**
Liburua aurkeztuko du bihar Eibarren diharduen Anselmo Arrieta apaiz bergararrak > 11



> **ELGETA**
Saihesbidearen bigarren faseko obrak egiteko asmoa dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak > 14

ESKORIATZA > ISTRIPUA

Autobideko lurjausiaren kalteak aztertzen dabilta

LURJAUSIA

Eginda zeuden bi tuneletako bat lurrez estali zen, eta bestea ere kaltetu egin du lurjausiak

BALORAZIOA

Gertakaria aztertzen ari dira, eta, 15 egun baino lehen, ezingo dugu gertatu dena zehatz jakin

MAIER URANGA > ESKORIATZA

Eguaztenez, hilaren 5ean, Eibar-Gasteiz autobideko Zarimuzko tartean eginda zeuden bi tuneletako bat lurrez estali zen, lurjausia dela eta. 16:30 inguruan, Agarre-Goiko baserriko zelaietako lurrak, jasaten ari ziren pisuaren ondorioz, goitik behera jausi ziren, 15 metro inguruko eusteko paret bat ere aurrean eramanda. Istripua gertatu zenean, inguruan langileak zeuden arren, ez zen zauriturik egon; kalte materialak, ordea, oraindik ere baloratzen ari dira.

Bidegi, Gipuzkoako Azpiegitura Agentziakoekin kontaktuan jartzerik izan ez dugun arren, jakin badakigu teknikariak gertaera aztertzen ari direla, eta, astelehenetik aurrera, tunel aho-joateko aukera ere izango dutela komunikabideek; orain arte, hori egitea galarazita egon da. Teknikarien balorazioa heldu bitartean, ikusi eta jakin dugunaren arabera, estali gabe geratu den tunelaren ahoa tapatzen ari dira, lurjausi gehiagorik gertatu ez dadin; baina, dirudienez, ez da nahikoa egiten ari direna, izan ere, zapatuan, lur gehiago jausi zen. Agarre-Goiko zelaiako zati handi bat jausi zen, eta, are larriago, inguruko baserriarrek

bazuten zegoen arriskuaren berri. Tunel ahoak motzegiak omen ziren, eta horiek luzatu eta autobide egokia egitea eskatzen ari dira eta kaltetu eta herritar asko.

ONBIDE

Onbidek, Debagoiena zeharkatuko duten azpiegitura proiektu erraldoietan –Eibar-Gasteiz autobidea eta Abiadura Handiko Trenna, bereziki– ingurumena zaintzeko lan egiten duten herritarrak batzen ditu. Helburua ibarrean autopista modernoa eraikitzea da, ingurumena eta bizi baldintzak errespetatuko dituen, eta administrazio eta alderdi politikoei agindutakoa exijitzeko ari dira lanean.

Onbidek eta Eskoriatzako Udalak aurreko hilabetean izan zuten Bidegirekin azken batzarra, oraindik behin-behineko lur desjabetzeak eta beste zenbait gai hitz egiteko dituzte eta.

ATZERAPENA

2005eko ekainean, Bidegik Dragados, Campezo, Serbitzu eta Sicek osatzen duten UTEari eman zion, lehiaketa bitartez, autobidearen gestioa eramateko aukera. Izatez, istripua gertatutako tartea bukatuta beharko luke dagoeneko.



LUR MUGIMENDUAK Agarre-Goiko baserriko lurra, jausita, eta paret, apurtuta.

MAIER URANGA



TUNELA Bi tuneletako bat guztiz estali zuen lurrak, eta bestea ere kaltetu zuen.

MAIER URANGA

UDALA > AUZO ALKATEAK

Kaleko auzoetako alkate berriak izendatu dituzte

Aukeratu dituzte datozen kaleko auzoetako alkate berriak; bat izan ezik, gainerako guztiak EAEkoak dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Martitzenean, hilaren 4an, aukeratu zituzten datozen lau urteotan kaleko auzoetako alkate izango direnak. Baserriz auzoetako alkateekin gertatzen ez den moduan, zirkunskripzio bakoitzean lortutako botoen arabera aukeratu dituzte kaleetako auzo alkateak. Hain zuzen, udal hauteskunder-

tan bokal izan direnen artean aukeratu dituzte alkateak, udal hauteskunderetan moduan, moduan, D'Hont sistema erabilita.

ALKATEAK, AUZOZ AUZO

Auzoz auzo begiratuta, honako hauek dira alkate berriak: Erdigunean, Maria Jose Jimenez Benito, Eusko Abertzale Ekintzakoa; Uribarrin, Kristina Zeziaga, hori ere EAEkoak; Santa Marinan, berriz, alderdi sozialistako Ana Belen Granado izendatu dute alkate; Musakolan, Jesus Mari Apraiz, EAEkoak; eta San Andresen, Aitor Guridi, Eusko Abertzale Ekintzakoa. Arrasateko Udaleko arauen arabera, alkatearen ordezkariak lanak beteko dituzte auzo alkateek.

KONSTITUZIO EGUNEAN, LANEAN

Udal kontuekin jarraituz, Konstituzioaren egunaren harira, Udalean laneguna izan zuten. Alkateak gogora ekarri zuten "gure herriak ezezkia eman" ziola Konstituzioari. Salatu zuten Konstituzio hori "Euskal Herriarentzako muga" dela, eta "herri bezala dagozkigun eskubideak ukatzen" dituela. Hau ere adierazi zuten: ez dagoela "ospatzeko ezer; bai, ostera, Euskal Herriaren alde lan egiteko aukera polita". Gaineratu zuten "Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatu nahi" dutela, eta dei egin zuten Euskal Herriarentzako lan egutegi propioa eskatzen duten "eragileekin" bat egiteko, besteak beste.



LEKEITION Argazkian, ikuskizuna Lekeition egin zutenekoa.

EMAKUME TXOKOA

EMAKUMEAK > KULTURA

Datorren egunean, antzerkia dago Emakume Txokoan

Abenduaren 13an, 19:00etan da antzezlanaren ikusteko hitzordua, Emakume Txokoan bertan

U.M. > ARRASATE

Emakume Txokoaren abendu-ko egitarauaren barruan, oraingo asteko egunean, emakume etorkinen egoera landuko dute. Horretarako, klown edo antzerki emanaldia aukeratu dute. Izan ere, *Meva Mare* izeneko antzezlanaren ekarriko dute Emakume Txokora.

ATZERRIAN, BAKARRIK

Bego Gomez izeneko klown bizkaitarrak kontatuko ditu

atzerriko herrialde batean bizitako emakume baten bizipenak. Emakume hori bakarrik bizi da eta, gainera, seme-alabak ere baditu.

Bada, emakume horren eguneroko bizimodua, pozak, arazoak... irudikatu ditu. Hori horrela, antzezlan horrek emakume askok aurre egin behar dioten bizimodu latza irudikatuko du. Hitzordua 19:00etan, Emakume Txokoan bertan da. Sarrera dohainik izango da.



ZABALIK Herritarrek, azokako produktuak ikusten.

JOSETXO ARANZABAL

GIZARTEA > ELKARTASUNA

Harreman elkarteak azoka zabaldu du, aurten, Iturriotzen

Abenduaren 24ra arte, artisautzako produktuak eta bidezko merkataritzakoak eros daitezke

U.M. > ARRASATE

Joan den eguaztenean hasi eta abenduaren 24ra arte, hirugarren munduko produktuen azoka eta erakusketa izango da Arrasaten. Urterokoari jarraituz, gobernuz kanpoko Harreman elkarteak antolatu du ekimena, eta azoka horretan batutako dirua bidezko merkataritzarako erabiliko dute. Aurten, gainera, leku

pribilegiatuan lortu dute saltokia ipintzea: erdialdean, Iturriotz kaleko 3. zenbakiaren ondoan.

Batez ere, artisautzako produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira azoka horretan, eta, jakina, bidezko merkataritzan oinarritutakoak ere bai; hain zuzen ere, Eroski hipermerkatuan urte gutxian dagoen dendatik ekarritako produktuak.

Gobernuz kanpoko Harreman elkarteak aditza eman du, adibide batzuk ipintzearen, Indiako zilarrekin egindako eskulanak edo Perutik ekarritakoak erosi ahal izango direla. Oro har begiratuta, Hegoameriketako eta Afrikako produktuak aurkituko ditugu, batez ere, azoka horretan.

EGUNERO, ZABALIK

Azoka horren ordutegia honako hauxe izango da: lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

> INGURUMENA

Herri eskolak gaur sinatuko du Agenda 21 proiektua lantzeko hitzarmena Jaurilaritzarekin

Gaur, astelehena, Agenda 21en gaineko hitzarmena sinatuko dute. Jaurilaritzako Ingurumen eta Hezkuntza Sailak, Udalak eta Arrasate Herri Eskolako zentroko zuzendariak sinatuko dute, 10:00etan, Erguin herri eskolako liburutegian. Arrasaten 2003-2004 ikasturtean hasi zen Agenda 21 proiektua lantzen, Arizmendi Ikastolarekin eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxearekin. Hurrengo ikasturtean, Institutuak bat egin zuten. Gaurko hitzarmen horrekin, Arrasateko ikastetxe guztiek parte hartuko dute ekimenean.

> KARTA JOKOAK

Mus azkarreko bigarren txapelketa antolatu du Txinato tabernak datorren egubakoitzerako

Abenduaren 14an jokatu dute, 22:30ean hasita. Parte hartu gura duenak nahikoa dauka lehiaketa baino bost minutu lehenago azaltzea bertan. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu behar ditu, eta, asko jota, 50 bikote onartuko dituzte. Hori bai, 50 bikotek izena emanez gero, lehen saria 1.000 eurokoa izango da (besteak beste); bigarrena, 500 eurokoa; eta hirugarrena, 300 eurokoa.

> NAGUSIAK

Abaroako txapelketetako sari banaketa eta luntxa egingo dute, gaur, 18:30ean, elkarte bertan

Abaroan, gaur arratsaldean, hitzordua egin dute, orain dela bi aste jokatu zituzten mahai-jokoetako irabazleei sariak banatzeko. Gainera, lehiaketetan parte hartu zuten guztiei luntxa emango diete. Hitzordua 18:30ean da. Musean, Amando Redondo eta Jesus Blancok irabazi zuten; tutean, Felipe Conejo eta Juan Francisco Tristanek; eta briskan, Eufasia Villar eta Agustina Gartzia.



KONGO Gaur egun, Kinshasa hiriko Selembao auzoan, hezkuntza proiektu bat bultzatzen ari da Fisc erakundeak.

FISC

GIZARTEA > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Bidezko merkataritza postua ipiniko du Fisc-ek

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azken urteotan bezala, Fisc gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritzako postua jarriko du zapatuan, hilaren 15ean, San Martin plazan.

Urte hauetan guztietan zehar, ugariak izan dira Fundacion Solidaridad Compañia de Mariak (Fisc) egin izan dituen lanak. Erakundearen arduradunen arabera, helburuetako batzuk honako hauek dira: solidaritatean hezea, pobrezia jasaten duten taldeen garapena bideratzea, lehenetsua haurrei eta emakumei emanez; eta beharrezkoak diren proiektuak aurrera eramateko dirulaguntzak lortzea.

Hain zuzen ere, egoera latzetenan dauden herrietan lan egi-

teaz gain, gure testuinguruan sentsibilizazioa lantzeaz arduratzen dira Fisc-eko kideak. Bergaran, hainbat bazkide dauzka gobernuz kanpoko erakundeak.

HEZIKETA PLATAFORMA KONGON

Arrasateko HiperEroskin dagoen Harreman dendarekin konpromisoa dauka Fisc-ek duela hamar bat urtetik; han, elkarlana sustatzen saiatzen dira hainbat erakunde. Arrasaten saltzen diren produktuak lan baldintza duinetan egindakoak dira.

Zapatuko jardunaldira bueltatuz, lortutako diruak Kongoko Kinshasa hiriburuko biztanlerik zigortuenen egoera hobetzen lagunduko du. Selembao auzoko Heziketa Plataformaren eraikun-

tzarekin jarraitzea da Fiscen asmoa. Aipatutako eraikina 2006an eraikitzen hasi ziren, eta 2008rako amaituta egotea aurreikusten da. 1.500 ikasle inguru jasoko ditu, haur hezkuntzatik hasi eta lanbide heziketa bitartekoak. Era berean, auzoko ekin-tza sozialetarako bideratuko dute.

Esan bezala, zapatuan bidezko merkataritza postua jarriko dute Fisc-ekoek Bergaran. Denda zabalik izango da San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara. Kinshasako proiekturako propio sortutako artisauro produktuak eta elikadura eta artisauro produktuak salduko dituzte. Herri-tarrak plazara hurbiltzera eta laguntza kanpainan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

HEZKUNTZA > IKASTAROA

Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko aukera

Udaleko Euskara batzordeak antolatu du, eta izenematea hilaren 14ra arte dago zabalik

E.M. > BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak, herriko ikastetxeen laguntzaz, umeen jolasak eta kantuak ikasteko eta ipuin kontaketa lantzeko saioak antolatu ditu.

Ikastaroa 14 ordukoa da, eta euskaraz edo espainolez egiteko aukera dago. Irakaslea Ana Carpintero irakasle bergararra izango da. Izena emateko epea

egubakoitzera arte, abenduaren 14ra arte, dago zabalik, eta matrikula 24 euro kostatzen da. %85eko asistentzia dutenei, ordaindutakoaren erdia bueltatu egingo zaie ikastaroaren amaieran. Urtarrilean hasiko da ikastaroa.

Argibideak Udaleko Euskara zerbitzuan, 943 77 91 31 zenbakian, jaso ditzakezue.

> IKASTAROK

Zeinuen hizkuntza ikastaroan parte hartzeko aukera dago urtarrilean, Aransgi eskolan

Gorrek komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten pertsonen zuzenduta, zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgi, Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin. Eskolak, hasiera eta sakontze mailatan, urtarrilean hasiko dira, Aransgin. Matrikula 85 euro da. Argibideak, 943 76 27 03 telefonoan.

> IKASTAROK

Flamenko eta bitxigintza ikastaroak izango dira Bergaran urtarriletik martxora

Udaleko Kultura zerbitzuak bi ikastaro iragarri ditu: flamenko hasiera ikastaroa, urtarrilaren 11tik martxoaren 14ra (egubakoitzetan, 18:30etik 20:30era), eta bitxigintza, urtarrilaren 9tik martxoaren 12ra (eguztinetan, ordu berean). Irakasleak Blanca Carrasco eta Dunixero Royo dira, hurrenez hurren.

> GABONAK

Serafin Esnaola zenaren omenez, Gabonetako postalen lehiaketa deitu du Gure Ametsak

III. Gabonetako postalen lehiaketa deitu du Gure Ametsa elkarteak. 3 eta 12 urte bitarteko haurrek har dezakete parte. Orri laurdeneko kartulintan, Gabonen gaineko marrazkiak jasoko dituzte abenduaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Sari banaketa abenduaren 22an egingo dute, San Antonioko Gure Ametsa elkartearen.




E.M.

Miguel Altunako olerkariak

Ipintza eta Miguel Altuna instituetan, hainbat ekintza izan zituzten Euskararen Eguna ospatzeko. Miguel Altunako bertso eta olerki lehiaketa Miren Ibarluzeak irabazi zuen. Argazkian, ezkerretik eskumara, Usua Fuente, Miren Ibarluzea, Nerea Garmendia eta Agurtzane Altuna –azken biek saria jaso zuten zozketan; atzean, Alberto Larrea eta Gorka Lazkano irakasleak.

Anselmo Arrieta apaizaren lan berria

Eibarko San Andres parrokian ari den Anselmo Arrieta apaizak (Bergara, 1928) *Ganar la paz en Euskal Herria y en España* izenburuko lana aurkeztuko du bihar, martitzena, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Juan Kruz Mendizabal Santa Marinako parrokoak lagunduko dio Arrietari aurkezpenean. Bakea guztion esku dagoela defenditzen du Arrietak liburuan. Biharko ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta egileak gaiarekin interesatutako herritar guztiak aurkezpenera gonbidatu nahi ditu.



ARTXIBOA

GABONAK > EKITALDIAK

Umeendako eskaintza zabala egongo da Gabonetan

Musika emanaldiak, antzerkia eta jolasparkea dira Kultura, Gazteria eta Kirol departamentuek iragartzen dituzten ekintzetako batzuk

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gabonetan, ume eta gazteek opor luzeak izaten dituztela kontutan hartuta, haiei zuzendutako hainbat ekintza jaso ditu Udalak jaio-tarako egitarauan. Edozelan ere, helduendako hainbat hitzordu iragartzen dira, Benito Lertxundiren kontzertua eta bertso saioa, besteak beste.

Hala, umeendako ekitaldiak zapatuan hasiko dira: Korri eta Salto pailazoen *Show berria prestatzen* izeneko muntaia eskainiko dute. Horrez gain, euskarazko zinema emanaldia egongo da,

umeendako, hori ere; hala, abenduaren 23an eta 26an, *Doraemon eta dinosaurio txikia* filma ikus- teko aukera izango dute herriko ume eta gaztetxoek. Bestalde, helduendako, Aitor Arregi oñatiar- rarak zuzendu duen *Lucio* dokumentala urtarrilaren 3rako eta 4rako iragartzen da.

BIZAR ZURI ETA JOLASPARKEA

Azken urteotan egin den antze- ra, jolasparkea jarriko da kirol- degiko kantuan, urtarrilaren 3an eta 4an. Halaber, abenduko azken egunetan, 26an eta 27an, gerile- kuan, ur jokoak izango dira.

Ganbara Txiki abesbatzak *Jolasean* izeneko ipuin musika- tua eskainiko du. Bereziki ume- eendako, emanaldi bikoitza irag- artzen da, 27rako eta 28rako.

Edozelan ere, txikienek duten lehen hitzordua Bizar Zurirekin izango da. Olentzeroren postaria domekan etorriko da gazteku- ra, Oñatiko umeen gutunak jaso- tzeraz.



JOLASPARKEA Urtero bezala, umeendako jolasparkea egongo da kiroldegian.

GOIENKARIA

LERTXUNDIREN KONTZERTUA

Gabonetako musika emanaldi nagusia Benito Lertxundiren eskutik etorriko da. Oriotarrak hilaren 22an egingo duen kontzer- turako sarrerak salgai daude dagoeneko, kultur etxean.

Halaber, Gabonetako kontzer- tua abenduaren 16an izango da, parrokiaren, eta bertso saioa, urta- rrilaren 5ean. Bertso eskolako kideek jarritako gaiari erantzunez, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendi- luze, Iker Zubeldia eta Iñigo Man- zisor ibiliko dira kantuan.

Gabonetako kaleko argiak abenduaren 15ean isiotuko dituzte, urtarrilaren 7ra arte

Astigarrako Maycolux enpresa asteon hasiko da kaleko argiak ipintzeko lanekin. Udalarekin adostuta, honela jarriko dituzte argiak: Kale Barriaren, Kale Zaharrean eta Atzeko Kalean, argi arkuak jarriko dituzte; Euskadi Etorbidean eta, aurretik lehen aldiz, Errementari plazan, bina arku jarriko dira; Foruen plazatik San Juan kalerako sarreraren eta Kale Zaharrerako sarreraren, arku bana jarriko da; postetxearen parean, Udanara bidean, Olakua auzunearen parean, Zubillaga auzoan eta Olabarrieta auzoan, beste arku bana jarriko da; eta, azkenik, udaletxeko fatxadan ere argi apaingarriak jarriko dituzte. Gabonetako argi bereziak zapatutik urtarri- laren 7ra arte egongo dira isiotuta.

ELKARTASUNA > BIDEZKO MERKATARITZA

Merkataritza justua bultzatzeko denda egongo da

Bidezko merkataritza denda Don Pedruena etxeko beheko lokalean egongo da, eta zapatuan zabalduko ditu atea

M.B. > OÑATI

Azken urteotan egindako moduan, Parrokiako Misio Taldeak bidezko merkataritza den- da zabalduko du Gabonetan. Hala, Kale Barria kalean dago- en Don Pedruena etxeko behe- ko solairuan ipiniko dute.

Elkartasun denda zapatuan irekitzeko asmoa dute, eta lau aste bukaeratan egongo da zaba- lik, ordutegi honekin: egubakoit- zetan, arratsaldeko seietatik zortzietara, eta zapatuetan, goi- zeko hamaiketatik ordu batera eta seietatik zortzietara.

PRODUKTUAK

Parrokiako Misio Taldeak zabalduko duen denda, hiru- garren munduko artisaun lanak eta bidezko merkataritzako pro- duktuak salduko dituzte. Iraba- zi ekonomikoak baino gehiago, elkartasuna eta beste era bate- ko merkataritza, merkataritza justuagoa, egin daitekeela zabaldu gura du misio taldeak.

AFARI SOLIDARIOA

Halaber, Parrokiako Misio Tal- deak beste ekitaldi bat iragart- zen du, egubakoitzerako, hona- koa: urteko azken afari solida- rioa egingo du, beti bezala, Bidaurretako frailearen aretoan. Afaria amaitu eta gero, misio taldeak babestu duen Argenti- nako Quetas indigenen komu- nitatean ura atera eta gordetze- ko bonba eta ur biltegien proiektu- a bukatutzat emango da. Hala, azken datu eta xehetasunak azalduko dituzte.

ELKARTASUNA > ARGENTINA

Argentinarako Elkartasun Taldeak ez du material gehiago jasoko urtarrilera arte

Bidebarrieta kaleko 18an duten lokalaren aurrean dagoen edukiontzi zuria ere itxi egingo dute, urtarrilera arte

M.B. > OÑATI

Argentinarako materiala jasotzen duen taldeak etenaldia egi- tea erabaki du. Bidebarrieta kaleko lokalean pilatu zaien materiala tarteko, urtarrilera arte, material gehiago ez jasotze- ko erabakia hartu dute elkarta- sun taldeko kideek. Hortaz, dato- zen asteotan, ez dute lokala zabal- duko. Halaber, lokalaren aurrean dagoen edukiontzi zuria ere itxi egingo dute. Materiala uzteko etenaldi hau hilabete batekoa izango da, urtarrilaren 10era arte. Horrenbestez, Argentinara bidal- tze material gehiago, orain- goz, batuko ez dutela jakinaraz- teko oharra jarri dute Bidebarri- eta kaleko lokalean.



ITXITA Bidebarrietako lokalean, ohar baten, zergatik itxi duten azaltzen dute. M.B.

HEMERETZIGARRENA

Elkartasun taldeak etenaldia aprobetxatuko du urtarrilean Argentinara bidaliko duen 19. kontainera gertatzeko. Une honetan, Argentinara bidaliko duten materiala etiketatu eta

paleak plastikoeekin biltzen dabil- tza. Hortaz, atzerapenik ez bada- go, Argentinarako 19. kontaine- rra urtarrilaren 10ean irtengo da, Bilboko portutik. Orduan hasiko dira berriz ere materiala jasotzen.

ARETXABALETA > MERKATARITZA

Gabonetako kanpaina abiarazi du Aretxartek

Abenduaren 28ra arte saltoki horietan gastua egiten dutenak zozketa baten sartuko dira

I.B. > ARETXABALETA

Aretxarte herriko merkatarien elkarteak neguko kanpaina abiarazi du. Iaz ere egin zuten, eta, aurten, errepikatzea erabaki dute.

Azaroaren 26an hasi zuten kanpaina hori, eta abenduaren 28an bukatuko da. Hala, epe horretan Aretxarte elkartearen barruan dauden negozioetan gasturen bat egiten dutenak zozketa baten sartuko dira.

ZOKKETA, ABENDUAREN 29AN

Lehenengo saria 500 eurokoa izango da; bigarrena, 400 eurokoa; hirugarrena, 300 eurokoa;

eta, horrez gain, 100 euroko beste hamaika sari banatuko dituzte. Abenduaren 29an egingo dute zozketa, eta *Goienkaria*-n jakinaraziko dute zeintzuk diren irabazleak.

URTARRILEAN GASTATZEKO

Behin irabazleen izenak jakinarazita, horiek aste bete izango dute sariaren diru kopurua Aretxarteko denda edo negozioetan gastatzeko.

Aretxarte herriko 33 negozioi osatzen dute. Horien artean, janari denda, zapata denda, bitxitegi, estetika zentro, ilea-paindegi eta beste daude.



HAINBAT HERRITAR Argazkian, lan-taldeetako ordezkariak martitzenean egindako batzarra.

IKER BARANDIARAN

ARETXABALETA > UDALA

Bidean da herriaren gaineko plana garatzeko herritarren mahaia

Urtarril erdialdean bukatuko dute udal planerako herritarren aportazio eta iradokizunak jasotzeko lan-taldeen prozesu berezia

IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA

Orain dela hilabete batzuk, Aretxabaletako Udalak gutun bat helarazi zien herritarrei, udal planari aportazioak egiteko eskatuz. Horretarako, hainbat lan-talde osatu zituzten: merkataria, elkarteak edo talde eragileak, alderdi politikoak, enpresak, herrigunean bizi diren herritarrek eta landa auzoetan bizi direnak, hain zuzen ere. Hala, sei lantalde horiek osatu zituzten eta, guztira, 80 lagun dabilta datozen 10 urteotan herrian egin beharreko plangintza aztertzen. Batzar dezente egin dituzte dagoeneko, eta, martitzenean, udaletxeko ganbaran, Adoste taldea batu zen. Adoste taldea lehen aipatutako lantalde guztietako bina ordezkari osatzen dute. Batzar horretan, orain arte lantaldeetan jasotako aportazioak batu, kontrastatu eta aztertzen ibili ziren ia lau orduz.

ELHUYAR AHOIKULARITZA

Prozesu guztia Elhuyar aholkularitza zerbitzuak koordinatzen dihardu. Aholkularitza horretako kideak batzar guztietan izan dira, eta argibideak ematen dizkiete herritarrei.

Martitzeneko batzarrean, hainbat balorazio eta ondorio jaso zituzten. Orain artean, berdeguneei, industria herritik irteari edo herri orekatua lortzeari, besteak beste, eman zieten garrantzia.

ARETXABALETA, 2018AN

Batzarrak hasi aurretik, herritarrei honako galdera egin zieten: *Zer-nolako Aretxabaleta gura duzu datozen 10 urteotarako?*

Datozen bi asteotan, herriko hainbat alor ordezkariak dituzten lantaldeak berriro batuko dira, adoste taldean jasotako konklusioak aztertzerako. Horren ostean, urtarrilaren 17an Adoste taldea berriro elkartuko da. 17:00etan egin dute hitzordua, udaletxeko ganbaran, hain zuzen.

UDALAREN PLAN NAGUSIRAKO

Prozesu horren guztiaren helburua da, Udalak hirigintzaren alorrean abiaraziko duen Plan Nagusia garatzerako orduan, herritarren aportazioak jasotzea eta kontuan hartzea. Horretarako, baina, Elhuyar aholkularitza zerbitzuak herritarrek ondorioz-

tatutako puntuak jaso eta txosten osatua prestatuko du. Gero, txosten hori Udalari emango dio.

Elhuyar aholkularitzako arduradunek jakinarazi dute oso pozik daudela herritarren eskuhartzearekin. Are gehiago, nabarmendu zuten herritarrek aportatzeko gogo handiarekin daudela, eta hori igartzen dela.

Bestalde, lantalde horietan esku hartu duen herritar batek esan digu aukera ona dela herrian egingo diren proiektuen gaineko informazioa jasotzeko. Horrez gain, azpimarratu du, ordea, lantaldeetan, gazte eta zahar oso gutxi daudela; eta horiek ere esateko asko izango dutela, herritar horren iritziz.



ZOKKETA Bezeroek betetzeko txartelak daude dendetan.

JOSETXO ARANZABAL

> ESKORIATZA

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa egingo du Amuska elkarteak hilaren 17an, 18an eta 19an

Amuska elkarteak Gabonetako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa antolatu du. Hitzordua hilaren 17, 18 eta 19rako egin dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean, kultura etxean. Horren irakaslea Maria Jesus Miguel izango da. Izena emateko azkeneko egunak gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, dira. Amuskako bazkideek 15 euro ordaindu behar dute; gainontzekoek, 18 euro.

> ESKORIATZA

'Zentzua erabiliz ligatu' izeneko tailerra egingo dute gaztelekuan, datorren egubakoitzean

Abendurako hainbat ekintza antolatu dituzte gaztelekuan. Hain zuzen ere, egubakoitzean, hilak 14an, eta zapatuan, 15, *Zentzua erabiliz ligatu* tailerra egingo dute, 18:00etatik 19:30era bitartean. Gaztelekuan egiten dituzten ekintza guztien moduan, 12 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta dago. Bestalde, hilaren 22an, eskulan tailerra egingo dute, eta ispiluak, fimoa eta beste lantzen ikasiko dute. Gura dutenek Gabonetarako opariak egin ditzakete.

BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



JAVIER MADRAZO Etxebizitza sailburu Javier Madrazo, Udaleko ordezkariekin.

JOXEBI RAMOS

LEINTZ GATZAGA > ETXEBIZITZA

Etxebizitza sailburua lanetaz jakitera etorri zen

Pilar kaleko, frontoi inguruko eta Erronda pasealekuko lanak Jaurilaritzak lagunduko ditu

A.B. / L.K. > LEINTZ GATZAGA

Etxebizitza eta Gizarte sailburua, Javier Madrazo, Leintz Gatzagan izan zen eguazten goizean. Azpiegiturak hobetzeko lanen bigarren faseari ekingo diote laster, eta Jaurilaritzak 169.000 euroko dirulaguntza emango du lan horietarako; hain

zuzen, kostuaren %75. Madrazo lanen nondik norakoak jakitera etorri zen.

Bigarren fasean, Pilar kalean, frontoi inguruan eta Erronda pasealekuan egingo dituzte lanak. Gune horietako zangak egokitzea da helburua; izan ere, zaharrak dira, eta ez dute euri ura

jasotzeko sistemarik, eta ur beltzen saneamendua, bestetik, oso zaharra da eta hondatuta dago. Eremu horietan, gainera, ez dago gas sarerik, eta zangek ez dute argi publikorik.

Madrazok esan zuenez, "hiri-guneak oso garrantzitsuak dira herritarren bizi kalitatea bermatzeko. Horregatik, babes ofizialeko etxebizitzak bultzatzeaz gain, Udalekin elkarlana bultzatu nahi dugu, hiriguneak eraberritzeko".

ANTZUOLA > ZERBITZUAK

Kaleko argiteriaren arazoak ia konponduta daude; argindar kaxa berria jarriko dute laster

Beheko auzoko kaleko argiteriaren arazoa konpontzeko, argindar kaxa berria jarriko dute

Alkateak dio argiteria sistema zaharkituta dagoela, eta horrek sortu dituela arazoak

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Abuztuan hasi ziren kaleko argiteriarekin arazoak herriko hainbat lekutan. Arazo handienak Beheko auzoan sortu ziren, izan ere, astebete egon ziren argi barik kale horretan. Zurrategi ere, hainbat egunez egon zen ilunpean. Harrezkero, Eguzki auzora ere iritsi zen arazoa.

Dagoeneko, konpontzeko bidean dago arazoa. Batetik, argindar kaxa berria jarriko du Udalak Beheko auzoko kaleko argiteriarendako. Izan ere, gaur egun, frontoiko argindar kaxatik bideratzen da Beheko auzoko, Eguzki auzoko eta Zurrategiko kaleko argiteriarendako argindar guztia. Horrek gainkarga arazoak sortzen ditu.

INSTALAZIOAK, ZAHARKITUTA

Pedro Iturbe alkateak hauxe adierazi du: "Urte mordoan, kaleko argiteriaren kableatuan ez da ezer egin, eta zaharkituta geratu da; gainera, sistema berrantolatze beharra zegoen, izan ere, adituek esan digutenez, instalazioen erabilera ez dago ondo planifikatuta".

Eguzki auzoan, bestalde, Kalebarrengo zubia zabaltzeko lanek ere izan dute eragina; kable bat apurtu egin zuten, eta horrek eragin zituen arazoak. Kableatu hori berri dute dagoeneko. Azkenik, Zurrategiko aberia bat konpondu duten arren, aberia txiki baten bila dihardute Udaleko arduradunek, horri ere konponbidea emateko.

ELGETA > ERREPIDEAK

Saihesbidea egiten jarraitu nahi du Foru Aldundiak

Egitekoa den bigarren faseak Elorrio, Eibar eta Bergarako errepideak lotuko ditu

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Barikuan, azaroak 30, aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007-2011 Kudeaketa Plana. Agintaldirako dituen asmoen berri jaso du Aldundiak 120 orriko txostenean. Tartean, Elgetako saihesbidearen bigarren fasea egiteko asmoa dago.

Azpiegituretako zerbitzu orokorrak hornitzea izenburu duen atalean jasotzen du Elgetako saihesbidearen bigarren fasea. Beste proiektu batzuen artean, Aldundiak Kudeaketa Planean jasotzen du "oinarrizkoa dela Gipuzkoaren garapenerako azpiegitura berri hori planifikatu, diseinatu eta eraikitzea".

Foru Aldundiko prentsa arduradun Oskar Rekalderekin harremanetan jarrita, esan digu goiz dela oraindik proiektuaren inguruko kostuaren edo epeen gaineko informazioa emateko. "Horrelako proiektuek luze jotzen dute", aurreratu du. "Lehenik eta behin, trazadura proiektua egin behar izaten da, eta, jarraian, eraikitze-proiektua. Gero, lana esleitu egin behar da eta, azkenik, obrak egin", adierazi du Rekaldek. "Une honetan, trazadura proiektuarekin gabilta", azaldu du.

Bestetik, Aramaion bukatuko dute Doke taldekoek euren emanaldi bira. Hala, hilaren 29an, *Acto para la Noche Buena* lanaren azkeneko emanaldia Aramaion egingo dute. Izan ere, lan horrek Aramaioekin lotura handia dauka: Pedro Ignacio de Barrutia, *Acto para la Noche Buena*-ren egilea, aramaioarra zen, Basauti base-rrian jaiotakoa. Lanaren moldaketa egin duen Jose Mari Velez de Mendizabal ere aramaioarra da, eta baita antzezlari musika jarri dion Sabin Salaberri ere.

HERRIAN, IBILGAILU GUTXIAGO

Egitekoa den errepidea orain bi urte zabaldutako saihesbidearen lehenengo fasearen jarraipena izango da, Elorrio, Eibar eta Bergarako errepideak lotuko dituen, hain zuzen ere. Hala, auto eta kamioi gutxiago sartuko dira herri barruraino. Aurreko fasean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.300.000 euro inbertitu zituen obra horretan. Orain, ikusteko dago trazadura proiektuak zer jasotzen duen eta, ondorioz, lanen aurrekontua zenbatekoa izango den.



EMANALDIA laz Arrasaten egin zuten emanaldiaren une bat.

GOIENKARIA

ARAMAIO > KULTURA

'Acto para la Noche Buena' antzezlana, hilaren 17an

Euskal Telebistak antzezlana grabatzeko proposamena egin dio Doke antzerki taldeari, eta Aramaion egingo dute grabazio saio hori

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Arrasateko Doke antzerki taldea eskenatokira itzuliko da, iaz bezala, Pedro Ignacio de Barrutiaren *Acto para la Noche Buena* antzezlanarekin. Abenduaren 13an hasiko dute bira, Iruñean, eta Doke taldearen bigarren hitzordua Aramaion izango da. Izan ere, Euskal Telebistak euren antzezlana grabatzeko proposamena egin die, eta Aramaion grabatuko dute. Hilaren 17an izango da hori, kultura etxean, 19:00etan. Ez dituzte sarrerak salgai jarriko, baina Doke antzerki taldeko Jose Mari Velez de Mendizabalek azaldu digu an-

tezlana ikusi nahi dutenek ateak zabalik izango dituztela.

Bestetik, Aramaion bukatuko dute Doke taldekoek euren emanaldi bira. Hala, hilaren 29an, *Acto para la Noche Buena* lanaren azkeneko emanaldia Aramaion egingo dute. Izan ere, lan horrek Aramaioekin lotura handia dauka: Pedro Ignacio de Barrutia, *Acto para la Noche Buena*-ren egilea, aramaioarra zen, Basauti base-rrian jaiotakoa. Lanaren moldaketa egin duen Jose Mari Velez de Mendizabal ere aramaioarra da, eta baita antzezlari musika jarri dion Sabin Salaberri ere.

Kirola



> **PILOTA**
Aitor Mendizabalek DV sariko finala jokatu du > 16



> **FUTBOLA**
Aloñak samur irabazi zion Hernaniri Azkoagainen > 19



> **ESKUBALOIA**
Bergarak berdindu egin zuen Labegarietan: 31-31 > 20



> **ELKARRIZKETA**
Nacho Insa Eibarko jokalariekin jardun dugu > 22

FUTBOLA > LEHENENGO ERREGIONALA

Antzuola nagusi izan zen Bergararen aurkako derbian

Zale asko joan zen Eztala futbol zelaira, lehenengo erregional mailako derbia ikustera

Bigarren zatian sartu zituzten bost golak; emozio handiko partidua izan zen zapatuko derbia

ANTZUOLA

3-2

BERGARA

Antzuola > Arregi, Mendizabal, Zabalo, Franco, Guridi, Agirre, Azkarate (Idiakez, 90. min.), Berraondo, Zubikarai, Godoy (Urzelai, 83. min.) eta Cabrera.

Bergara > Soto, Bilbao (Ortiz, 67. min.), Elorriaga, Oregi, Urteaga, Loyola, Agirre, Piero, Martínez (Crespo, 67. min.), Balzategi (Ilzarbe, 60. min.) eta Cabanillas.

Golak > 1-0: Godoy (55. min.), 2-0: Mendizabal (60. min.), 2-1: Agirre (73. min.), 3-1: Azkarate (80. min.), 3-2: Urteaga (88. min.).



GOLAK Antzuolako jokariak, hirugarren gola ospatzen.

JOSETXO ARANZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA
Derbiak bereziak izaten dira, hiru puntuez gain, harrotasuna ere jokoan egoten da-eta. Bada, zapatuan, Eztala futbol zelaira, Antzuola izan zen nagusi Bergararen aurkako derbian.

Urteak ziren bi taldeek ez zutela elkarren aurka partidu ofizialik jokatzeko. Horregatik, ikusmin handia piztu zuen lehiak ibarrean. Nor baino nor gehiago ibili ziren Antzuola eta Bergara; azkenean, bost gol ikusi zituzten Eztalara joandako zaleek, eta hiru puntuak Antzuolan geratu ziren.

ATSEDENERA, GOL BARIK

Bi taldeak gogotsu zelairatu ziren; Eztalara hurbildutako zaleen babesa eskertu gura izan zuten bi taldeetako jokalariek. Baina,

lehenengo zatian, ez zen joko handirik ikusi Eztalan. Inor ez zen zelai erdiaren jabe egin, eta gol aukerak ere urriak izan ziren; garbiena Imanol Cabanillasek izan zuen, Bergararen alde.

Atsedenetik bueltan, partiduak beste bide bat hartu zuen; emoziorik ez zen falta izan. Lehenengo gola Godoyk egin zuen, 55. minutuan. Gol horrekin, etxeko taldeak indarra hartu zuen, eta, minutu gutxira, bigarrena iritsi zen; Mendizabal izan zen golegilea. Markagailua Antzuolaren alde jarri zen nabarmen; hala, partidua erabakita zegoela zirudien. Baina, 73. minutuan, Agirrek Bergararen lehenengo gola egin zuen. "Gure zelaia txikia da eta bada-kigu aukerak egitea oso samurra dela. Hortaz, bi goleko abantaila

ez da nahikoa izaten partidua erabakitzeko", argitu zuen amaieran Andoni Azkargorta Antzuolako entrenatzaileak.

2-1ekoarekin, partiduak intentsitatean irabazi zuen; bi taldeak gogotsu jokatu zuten beste gol bat egiteko. Lan horretan,

talde eraginkorrena Antzuola izan zen; 80. minutuan, Azkaratek 3-1ekoa jarri zuen markagailuan. Gol harekin, jokalariek eta zaleek lasaitasuna hartu zuten.

Hala ere, Bergarak ez zuen amore eman berdinketa lortzeko ahaleginean; hala, 88. minutuan,

Urteagak 3-2koa egin zuen. Baina ezer gutxirako balio izan zien bergararrei golak.

ENTRENATZAILEAK, POZIK

Esan bezala, Bergarak azkeneko minutura arte borrokatu zuen berdinketa lortzeko. Horregatik, pozik zegoen Manu Diaz entrenatzailea: "Taldeak guztia eman du azkeneko momentura arte, eta pozik nago jokalariek izan dute jarrerarekin".

Zapatuko garaipenarekin, Antzuolak hiru puntuko aldea zabaldu dio Bergarari, eta sailkapeneko goiko postuetan jarri da; Antzuolak 25 puntu ditu, eta Bergarak, 22. "Gure helburua mailari eustea da, ez goiko postuei begira egotea", azaldu zuen amaieran Azkargortak.

ESANAK

"Uste ez genuen denboraldia egiten gabilta, baina gure helburua mailari eustea dela argi izan behar dugu"

Andoni Azkargorta > Entrenatzailea

"Etxeko jokalariekin, talde giroa sortu eta zaleak gutaz harro egotea izan da gure nahia aurtengo denboraldirako"

Manu Diaz > Entrenatzailea

TXAPELKETA > DV SARIA

Mendizabalek DV sariko finala jokatu du; Bolinagak, ez

Eguenean Urretxun jokatuako finalerdian 19-22 nagusitu zen Mendizabal eta Jauregi bikotea

Ibai Bolinaga arrasatearrak ezer gutxi egin ahal izan zuen bizkaitarren aurka, eta 5-22 galdu zuen

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Ibarreko bi ordezkari izan ditugu DV sariko finalerdietan; finalerako txartela, ordea, bakarrak lortu du: Aitor Mendizabal antzuolarrak, hain zuzen ere. Ibai Bolinaga gazteak ezer gutxi egin ahal izan zuen Urretxun jokatuako finalerdian, eta azken sari gabe geratu da arrasatearra.

LANERAKO GOGO HANDIZ

Mendizabal eta Jauregi gogotsu irten ziren Ederrena pilotalekura. Lehenengo bi tantoak Ongai eta Mariñelarena bikotearentzat izan arren, gero, samur hartu zuten aurrea markagailuan Mendizabal eta Jauregik. 4-11 aurretik jarri ziren Antzuolakoa eta

Soraluzekoa. Atzeko koadroetan, Jauregi ondo ibili zen; jokalaria dotorea dela erakutsi zuen, eta Mariñelarenaren ausardiari ondo egin zion aurre.

Gero, Irurtzungo bikoteak 13-13 berdindu zuen; handik aurrera, lehia berdindua izan zen. Mendizabal eta Jauregi aurretik ibili ziren, baina markagailuan nagusitasun osoa erakutsi gabe. Aurrean, Mendizabal antzuolarrak bizitasuna duela erakutsi zuen. Sakez hiru tanto egin zituen, eta jokoan, sei.

Mendizabalek eta Jauregik Renobales eta Garmendia izango dituzte aurkari finalean; finala hilaren 23an, domeka, jokatu da, 11:30ean, Zarautzen.

IBAI BOLINAGA, FINAL GABE

Denboraldi bikaina egin ondoren, DV sariko finala jokatu gabe geratu da arrasatearra. Joan zen astean, beste final batetik kanpo geratu zen, Baque sariko finaletik, hain zuzen. Orduan, Jaunarenaren aurka galdu zuen. Oraingoan, berriz, Jaunarena bikotekide zuela, 5-22 galdu zuen Urretxun Urrutikoetxea eta Landabururen aurka.

Partiduak 32 minutu iraun zuen; amaieran, Mauri Zubillaga Arrasateko entrenatzailea penatuta zegoen: "Gehiago egin izanez gero, finala eskuratzeko aukera izango zukeen Bolinagak", esan zuen Zubillagak.

Baina, azken egunotan, Bolinagak izan duen eskuetako mina eta aurkarien nagusitasuna nahikoa izan ziren finalerdia galtzeko. Jaunarenak, sakez, tanto bat bera ere ez zuen egin; jokoan, berriz, Jaunarenak bat egin zuen, eta Bolinagak, huts. Urrutikoetxea eta Landaburu bizkaitarrek jokatu dute, hortaz, DV finala.



NAGUSIAK Mendizabal eta Jauregi.

MAURI ZUBILLAGA



GAZTEAK Bolinaga, Jaunarena bikotekidearekin.

MAURI ZUBILLAGA

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA

ARETXABALET ERDI-ERDIAN

Cerrajera Valle de Leniz
bizitegia

ORTUIBAR S.L.

Ibargarai 18, behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 11 18

ORTUZAL S.L.

Errekabarren 20, behea
20550 ARETXABALET
Tel.: 943 79 40 00



AZOKA > POL-POL

Bigarren eskuko materiala erosteko aukera dago gaurtik eta zapatura arte

Bergarako Pol-Pol mendi taldeak antolatutako azokan, mendirako eta eskiatzeko bigarren eskuko materiala eros daiteke

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Bergarako Pol-Pol mendi taldeak gaur zabalduko du bigarren eskuko mendi eta eski materiala saltzeko azoka.

Azaroko eta abenduko hainbat egunetan, etxean zuten materiala saldu nahi zuten lagunak gauzak jaso ondoren, orain, erosle txanda da. Pol-Pol mendi taldearen azoka gaurtik eta zapatura arte zabalduko da, arratsaldean, honako ordutegi honekin: astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 20:30era, eta zapatuan, 18:00etatik 21:00etara.

MENDIRAKO ETA ESKIATZEKO

Urteroko hitzordua bilakatu da Pol-Pol mendi taldearen azoka. Hala, lagun askok aprobetxatzen dute hasi berri den eski denbo-



AZOKA Argazkian, bigarren eskuko materiala saltzeko aurretik egindako azoka bat.

ARTXIBOA

raldirako bigarren eskuko materiala erosteko. Eskiatzeko eta mendian ibiltzeko botak, eskiak eta txamarrak dira gaurtik aurre-

ra zabalduko den azokan salgai jarriko diren batzuk. Hala, azokan salgai dauden produktu guztiek salmenta prezioa

finkatuta dute. Materiala eroan duen lagunak jartzen du salmenta prezioa. Pol-Pol taldearen lokalean egiten da salmenta.

> FEDERATU TXARTELA Euskal Herriko Mendi Federazioko txartela EHNArekin egin daiteke

Bai Euskal Herriari ekimenak "euskal naziotasuna eta nortasuna agertzeko", egiten diharduen lanaren ondorioz, Euskal Herriko Mendi Federazioko txartela Euskal Herriko Naziotasun Aitormen agiriarekin (EHNA) egin daiteke aurtendik aurrera.

Hortaz, datorren urteko txartela berritzera doazen federatuei "txartela EHNArekin berritzea" deia egin du Euskal Herriko Mendi Federazioak.

> ALOÑA MENDI Federatu txarteletan aldaketak egiteko hiru egun ditu Aloñak

Aloña Mendi mendi sailak 2008rako mendi aseguruia egin edo aldatu gura dutenendako hiru egun finkatu ditu: abenduaren 12a, 13a eta 14a, arratsaldeko zazprietatik bederatzietara. Hiru egun horietan, federatu txartel berriak tramitatu, aldaketak egin eta baja eman gura dutenen eskaerak onartuko dira.

Aloña Mendik ez du bazarrik tramitatuko abenduren 14az geroztik.



Alaitu iezaiezu Eguberria, Elkartasun pixka batekin

Elikagaien bilketa
Abenduaren 14an eta 15ean
Eroskiko korridorean

Jostailu berrien bilketa
Abenduaren 10etik 21era
Nodal Plazan

Eguberri hau garai berezia izatea nahi genuke. Lagundu Boulevardari, eta alaitu itzazu haurrak eta familiak. Jostailu berriak eta elikagaiak biltzen ditugu, bestelako Eguberri bat posible egiteko.



Alaitu zeure eguna, Boulevardean











www.el-boulevard.com

PREFERENTE MAILA > HAMALAU GARREN JARDUNALDIA

Sufrituta, baina merezitako garaipena eskuratu zuen Aloñak

ALOÑA

4-2

HERNANI

Aloña > Iñigo, Mikel (Maiztegi, 80. min.), Iker, Jon, Roberto (Iker, 86. min.), Julen, Unai, Xabier, Axier (Jon, 68. min.), Palacios eta Iñigo (Xabi, 60. min.).

Hernani > Iturriotz, Aginagalde, Mingo, Zapiain, Olasagasti, Imanol, Gomez, Gurrutxaga (Zabala, 58. min.), Lujanbio (Arkaitz, 70. min.), Hodei (Elgorriaga, 58. min.) eta Olazabal.

Epailea > Ulazia Garetxen jauna.



OSPAKIZUNA Argazkian, Aloñako jokalariek, atzoko goletako bat ospatzen.

JOSETXO ARANZABAL

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Preferente mailako hamalau garren jardunaldiko partidua jokatu zuten atzo, Azkoagainen, Aloñak eta Hernanik. Bigarren zatiko une batzuetan sarrera itsusiak izan zituen lehia izan arren, Aloñak merezita irabazi zituen jokoa zeuden puntuak. Hortaz, oñatiarrak laugarren dira sailkapenean, 23 punturekin. Halaber, galdu barik bosgarren partidua jarraian jokatu zuen.

GOLA, BEREHALA

Partiduko ordu laurdena bete orduko egin zuen Aloñak lehen gola: Jon Igartuak erdiratutako baloia Axier Ugartek errematatu zuen. Sei minutu geroago, etxeko taldeak abantaila handitu zuen, Roberto Idigorasek eginda-

ko golari esker. Bi gol atzetik egonda, Hernanik aurrera egin zuen, gola egiteko asmoz, eta, ordu erdia bete orduko, 27. minutuan, Jabi Gomezek egin zuen gola. Emaizta harekin joan ziren bi taldeak aldagelara.

GOLAK ETA SARRERA ITSUSIAK

Bigarren zatia hasieran, bi taldeak oso gogotsu irten ziren zelai-

ra, golen bat egiteko asmoz, eta biek ala biek aukera oso garbiak izan zituzten.

Bada, Aloñak egin zuen hirugarrena, 65. minutuan, Xabi Caminoren bitartez. Segituan, Hernanik bi aukera oso garbi izan zituen, baina Aloñako atezain Iñigok geldiketa onak egin zituen. Bada, Hernanik, hirugarren aukeran, ez zuen hutsik

egin, eta Mingok bigarren gola egin zuen. Handik aurrera, partidua nahastu eta gogortu egin zen. Bada, Idigorasek laugarren egin zuen etxekoendako.

Partidua erabakita zegoenean, txartelen txanda iritsi zen. Lehia amaitzear zegoela, Hernaniko Arkaitz jokalariek txartel gorria ikusi zuen, eta Caminok eta Astigarragak, horia.

EMAKUMEZKOEN LIGA > IGOERA FASEA

Gol festa eta lidergoa, BTLS taldeko nesken alde

BTLS

7-0

ELGOIBAR

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Igoera fasean, gogor jarraitzen dute BTLS taldeko neskek; eguenean, Elgoibarren aurka Ipintzan jokaturako norgehiagokan, bergararrak erraz nagusitu ziren. Gol festa izugarria eskaini zuten; eta, bide batez, sailkapeneko lehenengo postua eskuratzea lortu zuten.

HASIERATIK, HOBEAK

Etxeko neskek hasierako minututik aurreratu ziren markagailuan. Elgoibar baino talde sendoagoa direla erakutsi zuten, eta, joko eraginkorra eginez,

atsedenera 3-0eko abantailarekin joan ziren etxekoak.

Bigarren zatian, gauzek bide beretik jarraitu zuten, eta etxeko neskek gehiago izan ziren. Baloia ondo mugitu zuten, zelai osoa aprobetxatuz hegaletatik jokatzeak. Hala, beste lau gol egin zituzten bigarren zatian. Golegileak Maialen Hernandez (4), Olatz Bideluze, Mireia Mendizabal eta Nerea Madariaga izan ziren.

PARTIDURIK GALDU GABE

Jose Luis Beitia BTLS taldeko kidea pozik zegoen neskek egindako lanarekin: "Orain arte, partidurik galdu gabe daude, eta maila ona ematen ari dira", esan zuen amaieran. BTLSk iguera fasean jokatu behar dituen hurrengo bi partidua zailak izango dira; lehenengo, Vasconiarekin, Martutenen; eta gero, Hernanirekin, Ipintzan.

> PREFERENTE MAILA

Mondrak aurre egin zion Real Union liderrari, eta puntu baliotsua ekarri zuen Irun aldetik (2-2)

Pozik zegoen Igor Gordobil Mondrako entrenatzailea, eguenean, izugarritzko irudi ona eman zuen-eta talde zerrajeroak Irunen. Aurrean, Real Union zeukaten, ligako talde sendoenetarikoa. Lehenengo minututik irten ziren gogotsu zelaira; 20. minuturako, hiru aukera garbi izan zituzten arrasatearrek. Gainera, baloi bat zutoinera bidali zuten. Lehenengo gola Muruak egin zuen. Gero, kórner bidez berdindu zuen Irungo taldeak.

Bigarren zatian, partidu bikaina jokatu zuten bi taldeek; nor baino nor gehiagokoa. 80. minutuan egin zuen bigarren gola Lopezek; baina, azkeneko minutuan, beste kórner baten ondoren, Real Unionek 2-2 berdindu zuen. Hala, puntu bakarra ekarri zuten Irundik.

> PREFERENTE MAILA

Sailkapenean aurrera egiteko aukera paregabea galdu zuen UDAk, Ordiziaren aurka 2-0 galduta

Azkeneko partidua etxean irabazi ondoren, izugarritzko aukera ona zuten aretxabaletarrek, Ordizian irabazi eta goiko postuei eusteko, baina ez zen hala izan. UDAk irudi txarra eman zuen, eguenean, Ordizian, eta esku hutsik itzuli ziren etxera.

Atsedenera huts eta huts berdinduta iritsi ziren; baina, bigarren zatiko hamargarren minuturako, Ordiziako taldea 1-0 aurreratu zen markagailuan. Handik aurrera, etxeko taldea gehiago izan zen, eta, ordu erdi geroago, bigarren gola egin zuten. Igor Arenazak emaitza justua izan zela azaldu du. Orain, datorren astean, etxean, Berioren aurka jokaturako duten neurketa gertatzen hasi behar direla esan digu. Etxean irabaztea beharrezkoa izango da goian jarraitzeko.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	30	14
2. Ordizia	29	14
3. Trintxerpe	25	14
4. Aloña Mendi	23	14
5. Aurrera	23	14
6. Berio	22	14
7. UDA	22	14
8. Euskalduna	21	14
9. Mondra	18	14
10. Anaitasuna	17	14
11. Vasconia	17	14
12. Zestoa	16	14
13. Hondarribia	16	14
14. Hernani	16	14
15. Idiazabal	15	14
16. Zumaiaiko	14	14
17. Eibararrak	11	14
18. Touring	9	14

Emaitzak

Idiazabal-Anaitasuna	1-0
Zestoa-Eibararrak	3-3
Aloña Mendi-Hernani	4-2
Vasconia-Trintxerpe	2-3
Real Union-Mondra	2-2
Hondarribia-Touring	2-1
Berio-Aurrera	2-2
Ordizia-UDA	2-0
Euskalduna-Zumaiaiko	2-1

Hurrengoak

Zumaiaiko-Anaitasuna	
Eibararrak-Idiazabal	
Hernani-Zestoa	
Trintxerpe-Aloña Mendi	
Mondra-Vasconia	
Touring-Real Union	
Aurrera-Hondarribia	
UDA-Berio	
Euskalduna-Ordizia	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Antzuola-Bergara	3-2
------------------	-----

BIGARREN ERREGIONALA

Anaitasuna-BTLS	2-0
Gazteak-Mondra	0-4
Elgeta-UDA B	1-8

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

UDA-Sporting	1-0
Bergara-Anaitasuna	3-0

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Burumendi-Aloña Mendi	2-1
Mondra-Orioko	1-2

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK

Eibararrak-UDA B Arizmendi	1-1
Bergara-Ilintxa	3-1

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Tolosa-Bergara	4-1
Aloña Mendi-Lengokoak	4-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK

Ilintxa-Bergara B	2-0
UDA B	atsedena
Eibararrak-Arizmendi	3-0
Arrasate	atsedena

OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA

Bergara-Antiguoko	0-9
-------------------	-----

OHOREZKO INFANTILAK, KOPA

Arrasate-Zarautz	2-0
------------------	-----

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

BTLS-Elgoibar	7-0
---------------	-----

EUSKADIKO TXAPELKETA > HAMABIGARREN JARDUNALDIA

Azken jaurtiketari esker berdindu zuen lehia Bergarak

BERGARA

31-31

GURE JORGE FERNANDEZ

Bergara > Jon, Uribe (3), Aitor (5), Ugalde (3), Najera, Xaier, Mikel (11), Odei (1), Iñaki (3), Jon, Unai (1), Josu (2), Gartzia eta Urbina (1).

Gure Jorge Fernandez > Palacios, Azkoitia (5), Larrea (10), Hierro, Rubio, Gonzalez (3), Lopez de Heredia (2), Tricio, Suso, A. Martinez (1), S. Martinez (10) eta Rodriguez.

Golak bost minuturo > 3-0, 5-2, 9-5, 12-9, 14-9, 17-11. Atsedena. 19-16, 21-18, 24-23, 25-25, 26-27, 31-31.

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

"Partiduak errematatzea falta zaigu. Horixe esan diet partidu amaieran jokalariei. Azkeneko minutuetan jokatu dugun intentsitatearekin eta gogoarekin jokatu behar ditugu lehiako minutu guztiak. Oso haserre nago", esan zigun, zapatuko partiduen amaieran, Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik.

Izan ere, Labegaraieta kiroldegian, Gure Jorge Fernandez taldearen aurka jokaturako lehia eskutan izan zuten mahoneroek, atsedenean sei goleko errenta izan zuten-eta (17-11).

Edozelan ere, amaierako berdinketako puntu banaketa ekarri zuten. Hala, Bergarak bost puntu ditu sailkapenean, hamabi jardunaldi jokatu ondoren.



GOLEGILEA Bergarako jokalaria Mikel Plazaolak egin zituen gol gehien, 10, etxekoan artean.

JOSETXO ARANZABAL

MINUTU BIZIAK

Bergarak eta Gure Jorge Fernandez taldeak jokaturako lehiako hasierako minutuak oso biziak izan ziren. Hala, Bergarak egiten duen joko azkarrari esker, hiru goleko tartea zabaldu zuen markagailuan (3-0). Halaber, araba-

rrek bosgarren minutuan egin zuten lehenengo gola. Hamaikagarren minutuan, bost goleko abantaila hartu zuten etxekoek (7-2), bada, 0-3ko partzialari esker, Gure Jorge Fernandez taldeak aldea bi golera murriztu zuen (9-7). Lehenengo zatiko bigarren

ordu laurdenean, jokia asko nahastu zen; bada, Bergarak agindu zuen partiduan. Arabarrek, azken hamar minutuetan, bi gol bakarrik egin zituzten. Horregatik guztiatik, Josetxo Muniategiren taldea sei goleko errentarekin iritsi zen atsedenera (17-11).

ERRENTA, ALPERRIK

Bigarren zatiaren hasieran, Gasteizko taldeak askoz hobeto jokatu zuen erasoan. Segituan, 0-4ko partziala egin zuten, eta errenta bi goletan utzi zuten (17-15).

Hasierako minutu haietan, erasoak defentsak baino hobeak izan ziren. Hala, arabarrek, lehen hamabost minutuetan, lehen zatian beste gol egin zituzten (12).

Zapatuko norgehiagokako lehen berdinketa bigarren zatiko hemeretzigarren minutuan egin zuten Gure Jorge Fernandezek (25-25). Hiru minutu geroago, lehen aldiz jarri ziren aurretik markagailuan (25-26).

Azkeneko hamar minutuak oso biziak izan ziren. Amaitzeko bi minutu falta zirenean, bazurdiaren Gasteizko taldeak irabaziko zuela lehia, bi goleko tartea zabaldu zuen-eta (27-29). Bergarakoek lehia berdindu zuten, 30-30. Gure Jorge Fernandez taldeak baloia azkar ateratu zuten zelai erditik, eta gola egin zuten. Lehia bukatzeko segundo gutxi geratzen ziren.

Bada, etxekoek, jokaldi azkarraren egiteko denbora izan zuten. Hala, berdinketaren gola Gorka Ugaldek egin zuten.

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA, MUTILAK

Bergara-Gure Jorge	31-31
Urdaneta-Ford Mugarri	32-28

LEHENENGO TERRITORIALA

Arrasate eskubaloia-Hegialde Auto	25-23
-----------------------------------	-------

GAZTEAK EMAKUMEZKOAK

Verkol Aloña Mendi	atsedena
Citoren C. Arrasate-Arrate Amaña	5-42

KADETEAK EMAKUMEZKOAK

Bergara-Bera Bera	12-24
-------------------	-------

EUSKADIKO TXAPELKETA > SENIOR MAILA

Epailearen lanak baldintzatu zuen azken emaitza

URDANETA

32-28

FORD MUGARRI

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Haserre itzuli ziren Arrasateko eskubaloia taldekoak Loiutik; atzo jokaturako partiduan, epaileen erabakiek guztiz baldintzatu zuten emaitza. Lehenengo zati ona egin arren, azken emaitza txarra izan zen Arrasatekoentzat.

Partidua ondo hasi zen Balerdiren mutilentzat; lehenengo zatian, markagailuan errenta

polita hartu zuten, eta sei goleko abantaila ere izan zuten. Gero, baina, guztiz okertu zen partiduen nondik norakoa.

HAMAZAZPI, KALERA

Atsedena baino bost minutu lehenago, epailea Arrasateko jokalaria egosten hasi zen. Hala, bigarren zati guztian, hiru jokalarirekin besterik ez zuten jokatu. "Hiru edo lau jokalarirekin, ezin daiteke partidurik irabazi", esan zuten, haserre, Balerdik.

Izan ere, atzoko lehian, Arrasatek bi minutuko 17 kaleratze izan zituen, eta bost txartel gorri ikusi zituen, eta Urdanetak hiru kaleratze besterik ez zituen izan.



MUSAKOLA Irudian, Arrasatekoak, Musakolan jokoan; datorren astean, Askartza izango dute aurkari.

GOIENKARIA

LEHENENGO MAILA > LAGUNARTEKOA

Saskibaloiaz gozatzeko aukera egon zen Iturripen

Lagunarteko partidua jokatu zuten Mondragon Unibertsitateak eta Madrilgo Majadahondak

Jaieguna izan arren, zaleek saskibaloiaz gozatzeko aukera aprobetxatu zuten, eta Iturripera joan ziren

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Pasa berri den aste bukaeran, Ointxe saskibaloia elkarteko taldeek ez dute partidua ofizialik izan. Hala ere, jaieguna aprobetxatu dituzte Madrilgo Majadahonda taldearen aurka lagunarteko partidua jokatzeko.

NAGUSIEK, IRABAZI

Nagusiek Majadahonda elkarteko talde nagusiaren aurka jokatu zuten. Norgehiagoka berdindu izan zen; azken minutura arte borrokatu behar izan zuten etxekoek garaipena lortzeko.

Beste behin, Iñaki Merinoren taldeak ez zuen hutsik egin, eta, lagunarteko lehia izan arren, etxekoek aurrean irabaztea lortu zuten (81-79). Aurtengo denboraldian, senior mailako mutilek ez dute partidurik galdu etxean.

Partidua hasieratik jarri zen etxekoek alde. Lehenengo minutuetatik, nagusi izan ziren Merinoren mutilak; ohiko taldearekin jokatu zuten etxekoek: Kintana, Alartzia, Biain, Mallabiabarrena, Gamarra, Zeziaga, Peña, Arejola-leiba eta Antxon Hernandez. Gainera, Aitor Zeziaga ere Iturripen izan zen; baina sorbaldan, min hartuta, partidua utzi behar

izan zuen. Hiru edo lau hilabetez ezin izango du jokatu. Lehenengo laurdeneko emaitza 17-12 izan zen. Bigarren laurdenean, etxekoek errentari eutsi zioten, eta atsedenera 46-40 joan ziren aurretik.

BIGARRENEAN, HUTS ASKO

Bigarren zatian, markagailuko errentari eustea kosta egin zitzaion arrasatearrei. Erasoan, huts batzuk egin zituzten etxekoek, eta huts horiek aprobetxatu zituzten madrildarrek errenta jaisteko. Hirugarren laurdenaren amaieran, markagailuak 59-57 erakusten zuen.

Azken laurdena izan zen, beraz, erabakigarria Iturripen. Etxeko taldeak bi puntuko alde



ALARTZIA Etxeko jokalaria Gorka Alartzia, saskiratzea egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

besterik ez zeukan, eta bi puntu, saskibaloian, ez dira nahiko izaten partidua erabakitzeke. Lau garren laurdena emozioz betetako izan zen.

Laugarren laurdeneko hirugarren minutuan, etxeko taldeak taula azpian hiru huts jarraian egin zituen; lehenengoa, Peñak;

bigarrena, Zeziagak; eta hirugarrena, Alartziak. Bada, huts horiek aprobetxatuz, Madrilgo taldeak 65-60 hurreratzea lortu zuen markagailuan. Gero, 4-7ko partziala egin zuten madrildarrek, eta bi puntura besterik ez ziren jarri (69-67).

HIRUKO SASKIRATZEAK

Azkeneko minutuetan, madrildarrek norgehiagoka berdintzea lortu zuten; partidua amaitzeko minutu eta erdi falta zirenean, emaitza 73-73 zen.

Baloia etxeko taldeak zuen; taula azpian, Kintana ondo ibili zen, eta errebotea hartu zuen. Ondorioz, etxeko taldeak hiruko saskiratzea egin zuen (76-73). Baina pozak ez zuen asko iraun Iturripen, hurrengo jokaldian,

madrildarrek aurre hartu zuten eta markagailuan. Partidu guztian atzetik joan arren, azken minutuan 76-77 jarri ziren.

Azkeneko minutuan, etxeko taldeko jokalariek euren maila erakutsi zuten. Bada, Gamarrak hiruko saskiratzeak egiten trebea dela erakutsi zuen beste behin. eta 79-77 aurreratu zuen MU.

Hurrengo jokaldian, Madrilgo taldeak huts egin zuen erasoan; hortaz, partidua erabakita geratu zen. Imanol Zeziagak hartu zuen errebotea eta, erasoan, beste saskiratze bat egin zuten etxekoek. Hala, azken saskiratzea lortu eta 81-79 jarri ziren.

Amaieran, bai etxeko jokalariek eta bai Majadahondako jokalariek Iturripera joandakoen babesa jaso zuten.

KADETE MAILAKO NORGEHIAGOKAK

Euskadiko selekzioa eta etxeko taldea

Zapatuko saskibaloia festa kadete mailako Euskadiko selekzioak hasi zuen. Iñaki Merinok zuzentzen duen selekzioak Majadahonda elkarteko kadete mailako (92. urtekoak) mutilen aurka jokatu zuen. Taldean ez zegoen ez Arrasate ezta ibarreko jokalaririk ere. Euskadiko selekzioa samur nagusitu zen (59-30), eta laurden guztietan izan ziren nagusi Merinoren mutilak. Gero, Ointxe elkarteko kadete mailako mutilek (A taldea) galdu egin zuten Majadahonda (93. urtekoak) taldearen aurka (61-62).

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > DERBIA

Joko txarra egin arren, emaitza ona lortu zuten

ANDRAITZ

28-37

ESKORIATZA

MENDERATUTA

Lehenengo laurdenean, ondo jokatu zuten Eskoriatzako neskek. Hala, hamar puntuko errenta lortu zuten (4-14). Bada, bigarrenean, legazpiarrek hobeto jokatu zuten, eta tarte murriztea lortu zuten. Edozelan ere, atsedenean, eskoriatzarrak ziren nagusi markagailuan (16-20).

Zapatuko lehiako azkeneko bi laurdenetan, jokia ez zen asko aldatu. Eskoriatzako neskek baloi asko galdu zituzten erasoan, eta huts asko egin zituzten. Edozelan ere, partidua hasieratik bukerara menderatu zuten, eta irabazi egin zuten.

MIREIA BIKUÑA >ESKORIATZA

Saskiratze gutxioko partidua jokatu zuten zapatuan, Legazpin, Andraitz eta Eskoriatza taldeek. Derbia nahiko eskasa izan zen joko aldetik, eta, erasoan ere, zailtasun asko izan zituzten bi taldeek puntuak egiteko. Edozelan ere, Fernando Rasoren taldeak eskuratu zituen puntuak.



JOKALARIAK Argazkian, Maite Usabiaga (10), eta Aitziber Soriano (13), baloiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

Valentzia taldetik, bi urtetarako etorri da Nacho Insa, Eibarrrera jokatzera; hala, abuztu-
tik, Elgetan bizi da Alcoyn jaio-
tako 21 urteko jokalaria. Orain
arte, Valentzia taldeko harro-
biko taldeetan ibili den Insak,
orain urte bete, Txapeldunen
Ligan egin zuen debuta, Roma-
ren aurka, Italian. Lehenengo
maila ere ezagutu du; Realaren
aurka jokatu zuen, izan ere.

Nacho Insa > Eibar taldeko futbol jokalaria

"Txapeldunen Ligako partiduen inguruan, giro izugarria sortzen da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Las Palmasera bidaiatu aurretik egin genuen hitzordua Insarekin, Elgetako Espaloian. Gustuko lekua du Espaloia, eta baita Elgeta ere; "polita eta lasaia" dela aitortu digu. Futbolaz eta bere egunerokotasunaz jardun dugu berbetan.

**Zapatuan, Las Palmasen aurka jokatu duzue, sailkapeneko azkenaren aurka. Nola-
lehia izango da?**

Taldea ondo ikusten dut, maila ona ematen ari da, baina, bigarren mailan, edozer gerta daiteke; kategoriako azkenaren aurka jokatu arren, galtzeko arriskua dago. Gure lana ondo jokatzeko izan behar da, eta irabazteko gaitasuna daukagula pentsatu behar dugu; baina ez dugu aurkaria baino gehiago garelako pentsatu behar, bestela, galtzeko arriskua dago.

Ipuruan, Poli Ejidoren aurka irabaztea garrantzitsua izan zen, beheko postuetatik aldentzeko.

Bai, aurreko asteko partidua erabakigarria izan zen; partidu hura galduz gero, beheko postuetara jaisteko arriskua handia zen. Baina, irabazi egin genuenez, sailkapeneko erdialdean egoteko aukera dugu; orain, bosgarrenarekiko bi puntutara gaude.

Zein da denboraldi hasieran jarritako helburua?

Gure helburua ahalik eta azkarren 50 puntu egitea da. Hala, bigarren mailan jarraitzeko beharrezkoak diren puntuak eskuratu ditugu. Orain, 21 puntu ditugu; hortaz, ondo goazela esan daiteke. Lehenengo itzulia amaitzeko, oraindik 18 puntu daude jokoan; guk lau besterik ez ditugu behar denboraldi erdiko helburua lortzeko.

Hainbeste urte Valentzian ibili eta gero, gogorra izan da Eibarrera etortzea?

Ez; argi neukan Valentzian irten egin behar nuela. Banekien iazkoa nire azkeneko urtea izango zela; lehenengo mailara jauzia egiten ez banuen, ez nintzen beste urte betez han geratuko. Gainera, Valentziako arduradunek ere nik bigarren mailan joka nedin gura zuten. Niretzat, hona etortzea garrantzitsua izan da; izan ere, nire kirol ibilbidean, aurrerapausoa da bigarren mailan jokatzeko. Valentziako filialak hirugarren mailan jokatzeko du.



Nacho Insa, Elgetan, Espaloia antzokiaren aurrean.

ARANTZAZU EZKIBEL

Txapeldunen Ligako partidu bat jokatu zenuen, Romaren aurka, orain urte bete.

Bai, eta esperientzia izugarria izan zen. Gaur egun, Txapeldunen Liga da futboleko dagoen txapelketa handiena. Ez da partidua bakarrik, partiduen inguruan sortzen den giroa bai zik: futbol zelaia, zaleak, ereserkia... muntaia izugarria da. Ligako partidu batekin ez dauka zerikusirik. Horrez gain, futbol jokalaria oso on askok ez dute inoiz Txapeldunen Ligan jokatu; eta nik, aldiz, jokatu dudala esan dezaket.

Partidu hartaz daukadan irudia, zelaira salto egin eta zaletu mordoa ikustea da, bengala eta guzti. Gainera, giroa oso beroa zen; gu hurrengo faserako sailkatuta geunden, baina Romak beharrezkoa zuen irabaztea, bestela, txapelketatik kanpo geratzen zen. Ikusle mordoa zegoen, inoiz baino gehiago.

IPURUA

"Partidua galdu arren, ipuruako zaleek txalotu egiten gaituzte; Valentzian, ez"

BIGARREN MAILA

"Bigarren mailan, kalitate falta beste ezaugarri batzuekin ordezkatzeko da"

ETORKIZUNA

"21 urte ditut, eta ondo ikusten dut nire burua, baina, urte betean, edozer gerta daiteke"

Ligan, azkeneko jardunaldian egin zenuen debuta, Realaren aurka.

Polita izan zen ligan debuta egitea; aurretik, beste partidu batzuetan ere, deialdian egon nintzen, baina ez nuen jokatzeko aukerarik izan. Berezia izan zen ure hori; hala ere, aukeran, Txapeldunen Ligako eguna hobe izan zen.

Jokoari dagokionez, alde handia dago lehenengo mailatik bigarren mailara?

Bai, nik uste dut jokoan nabaritzen dela. Bigarren maila lehiakorragoa da; lehenengo mailan, kalitate handiagoa dagoela esango nuke. Bigarren mailan, kalitate falta hori beste ezaugarri batzuekin ordezkatzeko da; adibidez, korrika gehiago eginda. Talde handietan, gainera, partidua erabaki dezaket jokalaria daude, baina, bigarren mailan, ez dago horrelakorik.

Nola moldatu zara Eibarren?

Taldean, oso giro ona dauka, eta hori beharrezkoa da taldeak aurrera irteteko. Berba asko egiten dugu, eta elkar animatzen dugu; horrek lagundu egiten du.

Ipuruako zaleei dagokienez, gustura nago. Izan ere, ni natorren lekutik, zaleek, galdu edo irabazi, txistu egiten dute. Hemen, berriz, galdu arren, zaleek babesa ematen digute.

Silva ere Valentzian etorri zen eta, orain, selekzioko finko bat da.

Gurako nuke horrela izatea, baina, momentu hauetan, Silva bezalako jokalaririk batekin alderatzea larregi dela uste dut. Bai Valentzia taldean eta bai selekzioan, beharrezko jokalaria da. Nire nahia ahalik eta urte onena egitea da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nik ondo ikusten dut: oraindik 21 urte besterik ez ditut, eta bigarren mailan nabil jokoan. Baina nork daki zer gerta daitekeen; futboleko urte betean, dena aldatu daiteke, onerako edo txarrerako. Bakoitzaren egoerak eragina izaten du; minik ez hartzea, adibidez, erabakigarria da. Baina kontuan hartu behar da baita taldearen egoera ere.

Lehenengo mailara salto egitea buruan daukat, baina, aurretik esan bezala, faktore asko hartu behar dira kontuan.

Nola iritsi zinen Elgetara?

Abuztuan etorri nintzen. Zuzendaritza taldeko batek hainbat etxe erakutsi zizkidan Eibarren, eta baita Elgetan ere. Gainera, ni herri txiki batekoa naiz; hortaz, asko gustatu zitzaidan Elgeta, eta ez zen zaila izan bertara moldatzea. Oso lasai bizi naiz hemen.

Espaloian jokatzeko den porran parte hartzen duzue astero. Zer jarri duzue orainoan?

Elgeta-UDA, 2-1, Elgetaren alde. Realari, berdinketa jarri diot (1-1), eta Athleticek, partidu zaila izango duenez (Madril), 0-1 galduko duela jarri dut.

Euskarazko antzerkiak ikusten ere egon izan zara, ezer ulertu ez arren!

Bai; behin, taldeko jokalaririk batekin etorri nintzen. Egia esan, berak gura zuen joatea. Ni gustura nengoen antzerkia ikusten, ezer ulertu ez arren.


G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> 'KANTARI'

Biharko eta egueneko emanaldietako partaideak > 26



> DES-KONTROL

Gaztetxea lepo bete zen talde arrasatearra entzuteko > 27



> ABY-KEM

Danbakako irabazleek diskoko piezak jo zituzten 3.60an > 27



> MIREN ARREGI

GOITBko aurkezleak bere lanaz berba egin digu > 29

emaitzak

MAILAZ MAILA

25. NAZIOARTEKO ARRASATE HIRIA AKORDEOI LEHIAKETA

Sari nagusiak

1. Ari Lehtonen (Finlandia)
2. Harald Oeler (Alemania)
3. Ivan Talanin (Errusia)

28. GIPUZKOAKO AKORDEOI LEHIAKETA

Infantil maila

1. Andoni Otxoa
2. Maria Mogas
3. Lore Amenabar
4. Nestor Gascue

Gazte maila

1. Maria Zubimendi
2. Narciso Jimenez
3. Mikel Cerrada

Senior maila

1. Adrian Bolea
2. Blai Navarro
3. Nerea Perez

III. UDALAITZ AKORDEOI LEHIAKETA

1. Adrian Perez Martinez
2. Asier Otxandorena Dorregarai

V. AKORDEOI ORKESTRA LEHIAKETA

1. Lauhaizeta Akordeoi Orkestra



EMANALDIA Ari Lehtonen-ek, txapela jaso eta gero, pieza bat jo zuen.

JOSETXO ARANZABAL

ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK

Txapela Finlandiara joan da

BALORAZIOA

Antolatzaileen esanetan, ezin hobeto joan da aste bukaerako Akordeoi Jaialdia

IRABAZLEAK

Nazioarteko lehiaketan, finlandiar batek, aleman batek eta errusiar batek eraman dituzte sariak

MAIER URANGA > ARRASATE

Arrasate izan da, aurtengoan ere, akordeoizaleen topagunea. Egue-netik hasi eta domekara arte, Amaia Antzokia, Kulturate eta Arizmendi Ikastola izan dira akordeoilarien eszenatoki, izan ere, mundu guztiko akordeoilariak etorri dira gurera.

Arrasate Hiria Nazioarteko 25. aldiak izan du pisu handiena, baina beste lau ere egon dira egitarau barruan: 28. Gipuzkoako Lehiaketa, III. Udalaiz Lehiaketa, V. Akordeoi Orkestra Lehiaketa eta 20. Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia.

Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SUDCek eta Hauspoz Gipuzkoako Akordeoi Elkarteak egindako lana izan da Arrasateko Akordeoi Jaialdia; parte hartu dutenen arabera, primerako antolaketa izan du, gainera.

ERRUSIARRAK

Aurreko urtean frantsesa izan zen arren Nazioarteko Lehiaketako irabazlea, aurreko zazpi urteetan, errusiarrek eraman izan zuten saria etxera. Bielorrusiarrek,

(24. orrialdean jarraitzen du)

Ari Lehtonen finlandiarrek jantzi zuen txapela

(23. orrialdetik dator)

ukraniarrak eta serbiarrak ere etorri dira, atzerrian lehiaketak izen handia duela erakutsiz, eta lehiaketari aniztasuna erantsiz. Izan ere, Europa guztiko akordeoilariek entzuteko parada egon da Arrasaten, tartean, bi euskaldun ere: Marina Hernaez zumaia-rra eta David Gordo gasteiztarra. Hernaezek, 2005ean, Arrasateko Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen, senior mailan, eta Gordok ere sari berbera irabazi zuen, baina 2003. urtean.

ARI LEHTONEN, IRABAZLE

Ari Lehtonen finlandiarra izan da aurtengo Arrasate Hiria lehiaketako irabazlea. Hala, aurtengoa, errusiarrak hirugarren tokiarekin konformatu beharko dute, izan ere, jendea liluratuta zebilen Ari Lehtonen entzunda.

Aurreko urteko irabazlea bezala, Finlandian dabil Lehtonen, Sibeliu akademian goi mailako ikasketak egiten, Matti Rantanen maisuarekin. Mundu osoan dagoen ikastetxe onenetakoa omen da Sibeliu; ikasleak, behintzat, paregabeak dituztela argi geratu da. Bigarren tokian, Harald Oelder alemana eta, hirugarrenean, Ivan Talanin errusiarra sailkatu ziren. Guztiek derrigorrezko obra bat zuten jotzeko, Cesar Camareroen *Luz Azul*, hain zuzen ere, eta jo zituzten beste sei lanak bakoitzak aukeratutakoak izan ziren. Horrek zaildu zituen epaimahaiaren lanak; epaimahaiaren egon den Jose Antonio Hontorika donostiarrak esan bezala, "estilo ezberdinak jorratu dituztenez, ez da erraza balorazio berbera egitea guztiei; oso nibel altua egon da, gainera".

Domeka goizean eman zituzten sariak Amaia antzokian. Aste bukaerako lana eta gero. pozik zeuden bertan elkartutako akordeoi-joleak. Internazionalen parte hartu dutenak Arrasateko hotel batean egon ziren, eta egu-

neko ordu gehienak entseatzen pasatu zituzten, logelan sartuta. Hala ere, izan zuten dantzarako eta bertako janaria dastatzeko aukerarik ere.

Munduko akordeoilari onenatariko 10 gurean izateaz gain, maila guztietan, 200 musikaririk hartu zuten parte lehiaketa guztien artean, umeak, gazteak eta helduak.

BALORAZIOA

Balorazio positiboa egin zuten antolatzaileek, ekitaldia amaitzerakoan. Beste behin ere, Arrasate izan da akordeoiaren hiriburu, eta herriak emandako babesa eskertu gura izan du Aitor Furundarena Hauspoz elkarteak presidentek. "Munduko akordeoi-jole onenatariko batzuk bildu dira Arrasaten, akordeoia oraindik ere bizirik eta indartsu dagoela erakutsiz", zioten antolatzaileek. Horrez gain, Arrasaten "kalitatea, kantitatea eta akordeoiarekiko konpromisoa bildu" zirela nabarmendu zuten. Publikoaren erantzuna ere handia izan zen: egunero etorri da leku askotako jendea kontzertuetara.

LEHIAKETA BAINO GEHIAGO

Lehiaketako kontzertuez gain, beste hainbat ekintza ere egin ziren, guztiak akordeoiarekin lotuta. Barikuan, esaterako, Arrasateko Kajoi tabernan, kafe-kontzertua egon zen, eta, zapatuan, amaiera festa, Txalaparta elkartearen, afariarekin eta Kupe-la taldearen kontzertuarekin.

Vincent Lhermet 2006ko irabazlearen kontzertuak ere egon ziren Arrasateko Kulturaren, Aretxabaletako parrokiaren eta Tolosako musika eskolan.

EPAIMAHAI

Izen handiko musikariak izan dira aurtengoan ere epaimahai-kide. Mundu guztitik etorri dira hauek ere, tartean, Donostiako Jose Antonio Hontorika ere bai. Azken momentuan, txinatar bat etorri da, gainera; izan ere, Matti Rantanen maisu finlandiarrek ez du etortzerik izan, eta, bere ordeaz, Shanghaiko Cao Xiao-Qing irakaslea etorri zen Arrasatera.

Vincent Lhermet > 2006 Arrasate Hiria Lehiaketako irabazlea

"Hamabost eguneko atsedena dia pentsaezina da; atzamarrek ezin dute inoiz geldi geratu"

M.U. >ARRASATE

Iaz, Arrasateko Hiria Lehiaketa irabazi zuen Vincent Lhermet-ek. Aurtengo ere Arrasaten izan da, akordeoiarekin kontzertu batzuk emateko. 20 urte baino ez dituen arren, Lhermet frantziatik Finlandiara joan zen, akordeoia ikastera.

Zertan ari zara Helsinkin?

Sibeliu akademian ari naiz, akordeoia eta bere inguruko teoria eta pedagogia ikasten. Munduko ikastetxe onenetakoa da. Finlandian akordeoiaren inguruko tradizio handia dago; zoragarria da. Matti Rantanen-ek musikari asko akordeoi piezak konposatzera animatu zituen, eta, gaur egun, finlandiar konposatzaile guztiek akordeoi pieza bat konposatzeko dute, gutxienez. Oso garrantzitsua da hori akordeoiaren garapenerako. Uste dut Iñaki Alberdi, hemen, antzerako lana egiten ari dela. Iñaki eta Matti lan handia egin dute akordeoiari indar handiagoa emateko.

Nor da zure maisua?


Orain, Matti Rantanen finlandiarra da; Frantziar nengoenean, ordea, Jacques Mornet.

Nola jakin zenuen Arrasate Hiria Lehiaketaren berri?

Jacques Mornet maisua epaile gisa etortzen da hasieratik Arrasatera, eta beti oso ondo hitz egiten zidan lehiaketan sortzen zen giroaren inguruan. Banuen euskaldunen tradizioaren gaineko berri, eta gogotsu nengo bertara etortzeko eta nik neuk ikusteko. Arrazoi zuen: hemen giro berezia sumatzen da. Matti Rantanen ere epaile izaten da, baina, aurtengo ezin izan du etorri.

Zer suposatu du aurreko urteko irabazle izateak?

Arriskutsua eta ona da, era berean, irabaztea, baina ezin duzu onena zarelako pentsatu; lehena izan naiz



GOIENKARIA

momentu batez, baina ez naiz onena. Ikasteko erabili behar dituzu aukera hoiak, ezer gehiagotan pentsatu barik. Musikan, denbora guztian ari gara ikasten; izan ere, gehiegi dago ikasteko.

Zenbat ordu jotzen dituzu egunero?

Ahal ditudan eta gehien, baina osasuntsuena, niretzat, egunero bost edo sei ordu inguru jotzea da. Musikan lan egiten dugunok ezin dugu oporrik izan; uste dut konstantzia dela musikari izatearen ardura nagusia. Nire bizitzan 15 eguneko oporraldia gehiegi izango litzateke, pentsaezi-

na. Egun batzuk har ditzakegu, baina atzamarrek ezin dute inoiz geldi geratu behar.

Jotzeaz gainera, konposatzen saiatu zara inoiz?

Interesgarria iruditzen zait konposatzea, baina momentu konkretuetan, batik bat. Badauzkat ideia batzuk paperera eramanda, baina gehiagi ez. Denbora kontua da guztia.

Aurtengo kontzertuak ematen ari zara?

Bai, Arrasaten, Euskal Herrian eta Espainian.



Nerea Gaztañaga
Aretxabaleta

"Maisuak animatu ninduen Arrasateko Akordeoi jaialdira etortzera. Urte eta erdi baino ez daramat akordeoia jotzen, baina asko gustatzen zait. Irundik, Hondarribiatik... etorri dira aurkariak, baina ez nago urduri; egia esan, gulgainera igotzea. Polka bat jo dut", esan zigun parte-hartzaile horrek.



Amaia Zubimendi eta Aritz Iturralde
Zumaia eta Hondarribia

Bikoteka, bi lagun horiek izan ziren gazteenak, 10 eta 8 urterekin. Una historia de piratas delako pieza jo zuten. "Egunero jotzen dugu akordeoia, gutxienez, ordu erdiz", onartu ziguten. "Gehien gustatu zaiguna Internazionalen Ari Lehtonen izan da, baina guztiak dira oso onak. Orain ere, nola jotzen duten ikustera goaz", esan ziguten.



Marina Hernaez
Irun

"Gipuzkoar bakarra izan naiz Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketan parte hartzen, baina ez naiz finalera heldu, oso maila altua egon da eta", esan zigun Marina Hernaezek. "Niretzat, etxean jotzea garrantzitsua da, berezia, eta kanpokoak etortzean, bereziagoa da. Hotelean egon gara denok, buru-belarri ikasten".



Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker. Pasa mezua!



Promozio honen balioa 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.

Giauto

EIBAR
Otaola, 27
Tlf: 943 202 500
clientes@giauto.es

OLABERRIA
Karobi Ind. z/g
Tlf: 943 885 150
www.giauto.es





Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Jone Eguren,
Miren Azkarate, Usue
Aspiazu eta Uxue Olaziregi.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 12 urte.
ABESTIA > *Goizero.*



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Goizane Larra-
ñaga, Irati Eguren, Nerea
Mujika eta Uxue Azkarate.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 10 urte.
ABESTIA > *Narama.*



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Irati Bretaña,
Leire Zabaleta eta
Nerea Julian.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Eskutitza.*



NOIZ > Abenduaren 13an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aritz Leza, Iker
Kortabarría, Unai Barreiro
eta Urko Arregi.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 7 eta 8 urte.
ABESTIA > *Maite zaitut.*



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Jone Urria, Itziar
Campos, Maddi Elortza.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 11 urte.
ABESTIA > *Izar iheskorra.*



NOIZ > Abenduaren 13an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aitziber Marti-
nez de Alegria, Ane Guridi,
Maddi Guridi eta
Uxue Guridi.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 7, 9 eta 10 urte.
ABESTIA > *Deabrutxo
maitea.*



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Amaia Oregi,
Ismene Gorostidi, Itziar
Retes eta Miren Irureta.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 9 eta 10 urte.
ABESTIA > *Nirekin.*



NOIZ > Abenduaren 13an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Aitor Arzuaga,
Aritz Zubiagirre, Jokin
Moreno eta Kevin Martin.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Aitormena.*



NOIZ > Abenduaren 11n.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Ane Larrañaga,
Ibai Sanz, Iñaki Olabarria
eta Irati Polanko.
HERRIA > Bergara.
ADINA > 8 urte.
ABESTIA > *Maite zaitut.*



NOIZ > Abenduaren 13an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Amaia Pol
eta Goretzi Abaunz.
HERRIA > Oñati.
ABESTIA > *Laztana.*

MUSIKA > STREETPUNK

Lagunez inguratuta ospatu zuen 10 urteko ibilbidea Des-Kontrol taldeak

Aspaldi ez zen Arrasateko gaztetxera horrenbeste jende gerturatu

Beste behin ere, jendearenganako hurbiltasun eta esker ona erakutsi zuten

MAIER URANGA > ARRASATE

Des-Kontrolak 1996.urtean ekin zion talde ibilbideari, eta, hamai-ka istorio, barre, negar eta aha-lerin eta gero, Durangoko azokan aukeran izan dugun bertso CDa eta DVDa kaleratu berri ditu.

Zapatuan egin zuten herrian aurkezpena, eguerdian hasita. Iratin egin zuten bazkaria, Arristik prestatutako baba-jana; gero, DAT tabernan, DVDa ikusteko aukera egon zen, eta, lagunez inguratuta, kamisetak eta CD berriak ere zozketatu zuten.

KONTZERTUA

Aspaldi ez zen Arrasateko gazte-xera hainbeste gazte gerturatu, Euskal Herriko toki ezber-



BEROTASUNA Publikoak berotasuna eta babesa eman zien Des-Kontrolkoiei.

JOSETXO ARANZABAL

dinetatik etorritako jendeak ilara luzeak itxaron behar izan zituen sartzeko. Ordua baino beranduago hasi zen kontzertua, eta nabari zen emozioz betetako gaua izan behar zuela. Beste

behin ere, jendearenganako hurbiltasuna eta ingurukoiei esker ona erakutsi nahi izan zuen taldeak, beti ondoan izan dituztenei behin eta berriz eskerrak emanaz. Izan ere, 10 urteetan lagun

asko izan dira, inolako interesik gabe taldea lagundu dutenak.

DVDko irudiak eta CD berriko abestiak tartekatuz, ezohiko kontzertua eskaini zuen boskoteak, beraien abesti oso gutxi jo

zituzten eta. CDan eduki dituzten kolaborazioetako asko ere eszenatokira igo ziren, eurekin abestiak jo edo abestera: adibidez, RIPEko Yul, Iskanbilako Gotzon edo aspaldiko taldekide Osoron ere bai.

Kontzertu luzea baina, hala ere, jendeak gehiago nahi. RIP taldearen *Mondra* abestiarekin amaitu zuten; orduan, Aritz abeslariaren gonbita onartuz, lehenengo ilaratako asko taula gainera igo ziren, elkarrekin abestera. Jende gehiegi igo zen, akaso, Oier eta Hodei anaiek bateriaren eskaileran jarri behar izan zuten-eta, jo ahal izateko.

CD BERRIA ETA DVD-A, KALEAN

Aurreko astean jarri zuten salgai taldeak bere lan berria. Donostian grabatu zuten, kolaborazio askorekin.

DVDa Lekeitioko Txopi, Oskar, Mone eta Aranbururen lana izan da, gehienbat, baina Oierrek ere lan handia egin du. Disko horretan, Kañeria13, Saul Iskanbila eta beste hainbat lagun agertzen dira, eta taldearen hamar urteetako istorio eta pasarte ahaztezinak kontatzen dituzte. Urte luzeetako ibilbidea, talde honena; bere fruituak ematen ari dena, gainera.

MUSIKA > THRASH METAL

Aby-Kem-ek disko berria aurkeztu zuen zapatuan

Giro polita sortu zuen Aby-Kem talde bergararrak Arrasateko 3.60 aretoan eskaini zuen disko aurkezpen kontzertuan

M.U. > ARRASATE

Zapatu gauean egin zuen Aby-Kem Bergarako taldeak, 3.60 aretoan, bere lehen diskoaren aurkezpena, *Azken guda*. Jendeak gogo berezia zuen taldea zuzenean ikusteko, azken boladan apenas egin baitute kontzerturik. Danbaka lehiaketa irabazi eta gero, udan diskoa grabatzen ibili dira, eta ez dute zuzenatarako astirik izan, aurreko hilabetean bi kontzertu eman zituzten arren. 80 pertsona inguru gerturatu ziren 3.60ra, trash metal edo hardcore doinuak jorratzen dituen taldea entzutea, eta entzundakoarekin pozik bueltatu ziren etxera.

Disko berriko abestiak baino ez zituen jo Aby-Kem taldeak, eta giro oso polita sortzea lortu zuten inguratu ziren ikuslegoarekin. Rhyno talde bilbotarra ere entzuteko parada egon zen 3.60an; rock astuna jotzen dute horiek.

'AZKEN GUDA'

Aby-Kem-en *Azken guda* diskoa Gaztelupeko Hotsak zigilupean atera dute. Irailean hartu zuten masterra Shot estudioetan, eta orduan ekin zioten diskoetxearekin negoziatzeari. Boskotea gustura geratu zen kontzertuarekin, eta nahikoa jende hurbildu zen, inguruan beste hitzordu asko egon arren.

Diseinu berezia duen diskoa taldearen lehena da, aurretik maketa eta demo bat grabatuak dituzten arren. Danbakako bigarren aldiko irabazleak izan ziren, gainera, eta, poliki-poliki, badoaz beraien bidea egiten.

Arrasatera joateko gogoz geratu zinetenok jakin ezazue hilaren 22an Azpeitian eman behar dutela kontzertua, hango gaztetxean.



KEMENSU Taldekideak gogoz ibili ziren 3.60ko eszenatokian.

JOSETXO ARANZABAL

astea GOITBn

Astelehena, 10




> **Antzuola eta Bergararen arteko derbia**
21:15

Harmailatik saioak futbol kon- tuak landuko ditu; besteak beste, 1. erregional mailan, Antzuola eta Ber- garak zapatuan jokatu- tuko lehia.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea: TipiTTa- pa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Animalia.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Hitz bitan.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 2x2.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmailatik.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 11



> **'Berbaire'-n, tertulia-kide berriak daude**
21:15

Julen Iriondok aurkezten duen eztabaida saioak kide berriak aur- keztu zituen joan zen astean; alderdi poli- tiko eta ko- ordezkariak dira.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 2x2.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Animaliak.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:30 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 12



> **'Zaharrak Berri' saioan, gaur, ogiaren gainean**
20:15

Gure nagusie- nentzat egindako *Zaharrak Berri* saioan, Amaia Diaz de Monasteriogur- en dietistak ogia- ren gainean jar- dungo du.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze berioa.
14:45 Berriak.
15:15 2x2.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 2x2.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Hitzbitan.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Zu kazetari.
22:15 Ur eta lur.
22:45 Berriak.
23:15 Teknopolis.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 13



> **Ibarreko ume eta gaztetxoak, 'Kantari'-n**
20:15

Goiena Telebis- tako *Berriak* saioa- ren ostean, ibar- reko ume eta gaz- tetxoak ibiliko dira kantari. Amaia Txintxurretak aur- kezten du saioa.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marazki bizidunak.
14:15 Zu kazetari.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animalia.
16:17 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 2x2.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 14



> **'Ilunpean' eskainiko dute gaur iluntzean**
22:15

Iker Barandia- ran kazetariak aur- kezte- tuko saioan, bizitzaren, ibilbi- dearen... inguru- ko galderak erantzun- go du pertsonaia ezagun batek.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Animaliak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Eltze beroa.
16:15 Musikantoi.
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Eerreportajea.
18:45 Albisteak.
19:15 Ikusmira.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Horry.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 2x2.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Santa Lutzia eguna eta Jokin Zaitegi lehiaketa**

Gabon eta Santa- mas jaien atarian gau- den honetan, irratiak horien inguruko hain- bat gai landuko ditu. Santa Lutzia eguna, Jokin Zaitegi lehiake- ta, presoen aldeko azo- ka eta bigarren esku- ko jostailuen azoka landuko dituzte.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur
12:05 Euskadi irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua
Ilunpean saioa. *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak Berri* saioan eta beste batzuk

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua

gertutik



Miren Arregi
Kazetaria

"Telebista gustuko dut: irudiak indar handia hartzen du"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI
Miren Arregi oñatiarra da. Kazetaritza ikasketak Deustuko Unibertsitateak Donostian duen fakultatean egin zituen; Giza Zientzien eta Komunikazioen fakul- tatean, hain zuzen. Ikasketak bukatze- ar, Arrasateko Artemanen hasi zen, praktikak egiten. Gaur egun, GOITBko albistegietan ikusten dugu, eta baita GOITBko *Zu kazetari* saioan ere. Gai- nera, GOIENKARIA ere idazten du: Oñatiko orria eta kultura albisteak.

Zu kazetari saioa aurpegia zara. Zaila egin zaizu telebistaren aurre- an jartzea?

Hasieran, beldur pixka batekin ekin nion lanari; izan ere, aurkezle batek, kazetari lana egiteaz gain, aurpegia ere jarri behar du, eta horrek errespetua ematen du.

Baina, behin erabakia hartu eta lanean hasi nintzenean, gustura nabil. Nire burua telebistan ikuste- ko ohiturarik ez daukat; baina, inoiz ikusi izan dut, autokritika egiteko ez bada ere. Egia esan, prentsa ida- tzia baino gustukoago dut lan hau. Gainera, telebistan, irudiaren lagun- tza dago, eta horrek indar handia dau- ka. Oraindik, baina, asko daukat ikaste- ko.

Zuk zeuk bidaliko zenituzke horrelako programa batera zure lanak?

Egia esan, eta kontraesana diru- dien arren, ez naiz teknologia berrien zalea. Ez daukat kamera erabiltze- ko ohiturarik; ez irudiak hartzeko, ez argazkiak ateratzeko ere.

Hala ere, asko eskertzen da jen- deak bere lanak bidaltzea.

Nolako irudiak jasotzen dituzue programan?

Denetarik jasotzen dugu. Lan asko Deabgoieneko eskoletatik bidal- tzen dizkigute. Beste batzuk, ordea, Oartzungo Kilometroetatik, edo Usurbilgo Udaletik... Kalitateari dagokionez, denetarik dago, baina garrantzitsuena norberak egindako lanak direla da.

Telebistaren aurrean zeudenean, zer ikusten duzu?

Lehen, ikasle garaian, telesail asko ikusten nituen. Orain, lan kon- tuengatik, akaso, albistegiak ikuste- ko ohitura daukat.

asteko hitzorduak

Hitzaldia



OÑATI
> **Alberto Inurrategik Baltistanen gaineko hitzaldia egingo du**
Felix Inurrategi/Baltistan delako hitzaldia egingo du Alberto Inurrate- gik, abenduaren 13an, Elkar-Heziko LHko aretoan. 11:00etan izango da hitzaldia, eta Pakistango zona txiro hartan egiten duen lanaz jardungo du.

Lehiaketa



ARRASATE
> **Saltxitxa-jan lehiaketa egingo dute datorren zapatuan, DAT tabernan**
Bost minutuan, saltxitxa gehien ea zeinek jan ibiliko dira arrasateko DAT tabernan, datorren zapatuan. Partaide bakoitzarendako 25 saltxitxa prestatu- ko dituzte antolatzaileek. Lehiaketa berezi hori 20:30ean hasiko da.

Lehiaketa



ARETXABALETA
> **Literatura lehiaketa deitu du Loramendi Euskara elkarteak**
Lanak aurkezteko mugaeguna hilaren 19a da. Hainbat sailetan har daiteke parte: ipuina, komikia, bertso- paperak, grabazioa eta amodiozko gutuna. Parte hartzeko, ezinbestekoa da Aretxabaletan bizi edo ikastea.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Gosea ase guran, azokara!

Zubi luzea izan dugu aste-buruon; batzuek etxean lasai egoteko aprobeztatu zuten aukera; beste batzuek, Durangora joateko, eta parrandan ibili denik ere izango da.

Durangoko Azokako kaleetan, ibarreko jende asko ibili da. Barrenkale, Artekale... aurpegi ezagun asko "Epa", bati, "Zu be hemen", beste bati. Saltokien atzean ere izan ditugu debagoiendarrak; hauek ere, urterokoak.

Badakigu, baina, debagoiendarrak ez direla azokan bakarrik ibili; behin azokak

"Antzuola eta Bergarako mutilek afaria izan zuten elkarrekin, derbiaren ostean"

ateak ixten dituenean, Durangoko kaleetan murgiltzen da jendea, beste kultura modu batzuk ase guran.

Jai egunak zetzela-eta, jendea zoratuta ibili da saltokietan. Bi egun jarraian dendarik zabalik egongo ez direla eta, ahal den guztia erostera! Etxean. bi egunetako biziraupena egiteko adina jateko ez dute izango? Bestela, gutxi eago jateagatik ere ez da ezer pasatzen! Gehienok badaukagu gerri bueltan nahikoa indar metatuta...

Futboleko galdutako indarra berreskuratu zuten, zapatu gauean, **Antzuola** eta **Bergarako** mutilek. Derbiaren ostean, afaria egin zuten, elkarrekin. Hasieran, batzuk beste batzuk baino alaiago egongo ziren; baina, laugarren garagardoa eta gero...

hildakoak

• Jesus Maria Txintxurreta Anduaga.

Oñatin, abenduaren 4an. 64 urte.

• Pio Axpe Elejalde.

Aramaion, abenduaren 7an. 67 urte.

• Pedro Uribeetxebarria Eraña.

Arrasaten, abenduaren 7an. 77 urte.

• Jose Luis Mendizabal Lizarralde.

Elgeta, abenduaren 8an. 66 urte.

asteburuko albuma



Sukaldaritza ikastaroa. Bizikasi egiteko kideen, Bergarako San Joxepe Jubilatu Elkartearen eta Bergarako Caritasen elkarlanari esker, sukaldaritza ikastaroa egiten dihardute hainbat lagunek, etorkinak gehienak, San Joxepen. Hemengoek jaki goxoak gertatzen dihardute: berakatz zopa, lekak patatekin, haragi gisatua... Ikastaroak izan duen arrakasta ikusita, datozen hilabeteetan, Bizikasiko arduradun Miren Errastik, ibarreko erakundeen laguntzarekin, ikastaro eta hitzaldiak antolatzen jarraitzeko asmoa agertu du.



Arrasatekoak, kinto bazkarian. 1957. urtean jaiotako arrasatearrek kinto bazkaria egin zuten azaroaren 24an. Eguraldiak lagun egin ez bazien ere, euria ez zen oztopo izan, eta jende mordoxka elkartu zen bazkaritarako. Aretxabaletako Baster-Alde jatetxean egin zuten bazkaria eta, postre garaian, berriketarik ez zen falta izan. Bertaratu zirenek bazkaria antolatu zutenei eta, bereziki, jatetxekoei eskerrak eman nahi dizkiete, jasotako tratua eragatik eta egun polita pasa zutelako.



San Nikolas bolo-boloa. Eguen eguerdian, Arrasateko plaza umez bete zen. Udaletxeko balkoira begira jarri eta San Nikolas kantua abestu ostean, EAE-ANV, EB-Zutik, EA eta Aralarko hainbat zinegotzik botatako gozokiak harrapatzen jardun zuten; ez ziren alperrik poltsekin joan, betebeteta eramateko. Aurtengo berrikuntza 2 eta 5 urte bitarteko txikiendako bolo-bolo txikia izan zen. Izan ere, txikienek euren lekua izan dute Herriko plazan, gozokiak eta beste-lakoak hartzeko, nagusitxoagoen bultzadetatik aparte. Guztira, 800 euro gastatu zituzten gozokitan, iaz baino apur bat gehiago.

MONDRABERRI

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



zorion agurrak



ARRASATE
Nerea Artola
Abenduaren 7an,
urtebetetzea.
Zorionak, lankide
guztien partetik!



ARETXABALETA
**Oier Madinabeitia
Martelo**
Abenduaren 7an,
6 urte. Zorionak,
mutil haundi, eta
muxu eder bat,
famiariaren partetik.
Ez ahaztu pastela!



ARRASATE
Leire Garcia
Abenduaren 7an,
4 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagun
partetik!



ARRASATE
Ibai Tamayo
Abenduaren 8an,
urte bat. Zorionak,
Ibai! Urtetxo bat
bete duzun egune-
an, besarkada bat
eta muxu handi bat
opa dizut. Naroa.



ARRASATE
Uxue eta Luken Urrutia Abarrategi
Abenduaren 8an,
urtetxo bat.
Zorionak bioi, Ainhoa,
lehengusu eta lagun
guztien partetik.



OÑATI
**Aitziber
Etxeberriarteun**
Abenduaren 9an,
31 urte. Zorionak,
familia osoaren
partetik!



ARRASATE
Lucia Vazquez
Abenduaren 9an,
3 urtetxo, marima-
traka! Zorionak eta
patxo haundi-haun-
di bat, etxeko
danon partetik!



ESKORIATZA
Jabi Baena
Abenduaren 10ean,
urtebetetzea.
Bueno, bueno,
bueno, Jabier! Gaur
23 urte, Diosss!
Zorionak koadrila-
ren partetik.



ARETXABALETA
Damaso Uribesalgo
Abenduaren 11n,
urtebetetzea.
Zorionak eta urte
askotarako, aitona!
Eneko, Ander eta
Alazne.



OÑATI
Axen Nieto
Abenduaren 12an.
Zorionak eta muxu
handi bat familia
osoaren partetik,
batez ere, Garazi
Aimar eta Liberen
partetik.



ARRASATE
Larraitx Kortabarria
Abenduaren 12an,
urtebetetzea.
Zorionak eta urte
askotarako! Ondo-
ondo pasau eguna,
etxekoaren partetik!
Muxu handi bat.



OÑATI
Amaia Ugalde
Abenduaren 12an,
urtebetetzea.
Zorionak, printzesa,
Uxue, Beñat, aita
eta amaren parte-
tik. Patxo handi bat.



BERGARA
**Francisco Jose
Moreno**
Abenduaren 12an,
49 urte. Zorionak,
emazte, alabak eta
Ibanen partetik!



ARRASATE
**Emilio Lagunilla
Arregi**
Abenduaren 15ean,
urtebetetzea.
Zorionak, aitaita!
Mila, mila muxu,
Txomin, Aitzol, Oxel
eta Oskitxen
partetik.



ARRASATE
**Paulo Ferreira
Jausoro**
Abenduaren 16an,
9 urte. Zorionak!
Ondo pasa egun
handi honetan.
Muak, muak, muak!

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAREN bidez!

Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

jaiotakoak



Jon Sanchez Gonzalez

Oñati > 3,850 kilo. Abenduaren 8an. Gurasoak: Jaime (Oñati) eta Maite (Oñati). Argazkian, Jon jaioberria, kumatxoan, lo.

Aitor Furundarena > Musikaria

"Gipuzkoako herririk txikienean bizi naiz"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Aitor Furundarenak musika maite du txikitatik, eta akordeoia jotzen maisua da. Baina saltseroa eta geldiezina ere bada, eta aspaldian, Hauspoz Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko presidente ere bada.

Zure abizenak fonetika berezia dauka...

(Barre). Bai; ez didate inoiz esan, baina pentsatu izan dut horretan. Ez nago oso ziur zer esan nahi duen, baina, Azkueren hiztegian, *furunda* haria egiteko makinaren hotsa ei da.

Ordizian sortua, kanpoan asko ibilitakoa... Nongotzat dauka zure burua?

Hondarribian, Irunen eta Hendaian bizi izan naiz, baina, orain, Araman bizi naiz. Arama Gipuzkoako herri txikiena da: 1,3 kilometro koadro ditu.

Akordeoi barik, zelakoa litzateke zure bizitza?

Seguruenik, ederra litzateke. Aurkituko nuke zerbaite. Gustuko ditudan gauza ugari daude, eta horiekin saiatuko nintzateke.

Euskaltzaindiarekin oso hase-erre ei zaude...

(Barre). Haserre nago Euskaltzaindiari euskal izenen gainean eman dioten boterearekin. Ez dut ondo ikusten hortik kanpo izena eta generoa aukeratzeko halako mugak jarri izana. Errazagoa da kanpoko izen bat jartzea!

Zer pieza joko diozu bikoteki-deak eta biok espero duzuen umetxoari?

Une horretan, batere pentsatu barik inprobisatuko nuke.

TEST-A

Herria: Ordizia. **Adina:** 37 urte. **Ikasketak:** Musikako goi ikasketak. **Zaletasunak:** Hitz egitea eta natura. **Bete duzun amets bat?** Askok, baina, lehenbizi, musikari izatea lortu izana; horretaz bizi izatea. **Eta zer amets dauka zure betetzeko?** Aita izatea. **Bidaia bat?** Oso gogoan daukat Vietnamera egin nuen. **Zenbat seme-alaba eduki gurako zenuke?** Banaka eduki behar ditugu, eta oraindik ez dugu mugarik jarri.

Musikari moduan, zer gurago duzu, etxean konposatzea, diskoak grabatzea edo zuzenean aritzea?

Zuzenekoa da momentuan gehien disfrutatzen dudana. Baina konposatzen eta eskolak ematen ere asko gozatzen dut; ez hain modu bizian, baina gehiago irauten du.

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko presidente zaitugu. Zer da hori, ohorea edo asperraldia?

Aurten hasi naiz presidente lanetan. Ni akordeoilaria izanda, bada ohorea, baina, aldi berean, elkarteetan aritzea zelanbaiteko asperraldia da, eta, hemen ere, batzordekoek lan handia izaten dugu. Baina, tira!

Anfitrioi ona zara?

Horretan nabil. Iazko Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Txapelketako irabazle Vincent Lhermet etxean daukat, eta, egubakoi-tzean, Altzagaratera eraman nuen bazkaltzera. Handik izugarrizko paisaia ikusten da, eta gustatu zitzaion.




ARRASATE Akordeoi lehiaketetara etorri zen Furundarena.

JOSETXO ARANZABAL

www.goiena.net

Gabonetarako prestatzen -erosketak egiten, etxea apaintzen...- hasi zara dagoeneko?



biharamuna

Iñigo Biain


Gazteak omen dira etorkizuna

Martxoan, Haur, Nerabe eta Gazteei buruzko I. Biltzarrean izan nintzen Donostiako Kurtsaalen, Oñatiko Gaztelekuko lankideekin batera. Gazteekin lan egiten dugunez, interesgarria izango zela pentsatu genuen, eta halaxe izan zen, baina baita utopiko samarra ere. Garbi ikusi genuen han izandakook gazteen inguruko teorikoen eta gazte kultura kudeatzen duten politiko askoren arteko sintonia eza. Han, behin eta berriz esan zen gazteek eurek egin behar dutela aukera, gazte eta nerabeak izan behar direla kontsumitzen duten kulturaren protagonista, eta ez ditugula inoiz intelektualki gutxiatuak



balira bezala tratatu behar. Gazteak "segurtasun kutxetatik" atera behar ditugu, eta euren bizitzaren protagonista bilakatu, bizitza errealean dagozkien ardurak har ditzaten. Hori da teoria. Nire inguruan ikusten dudak praktika, ordea, erabat kontrarioa da. Azken hiru urtetan gazte oñatiarrek protagonismoa, ardurak, sormena eta kultur kalitatea galdu dituzte (Gaztetxea ez aipatzearren), aurretik euren aisialdi-kultura kudeatzen badakitela sobera erakutsi bazuten ere. Eta hau, jeltzale eredu-kultura kontrolatu, aseptiko eta filtratu baten mesedetan. Etorkizun kultural iluna benetan...

eguraldia



MINIMOA
+06

MAXIMOA
+10

Aldaketa handirik ez, nahiz eta tenperatura zertxobait jaitsi. Ipar-mendebaldeko haizea, zakar, baina atzo baino lasaiago.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

TRIKITIXA
Bexamelak eta pastela (Maizta ta bixar) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kopas Jurberrak) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxakano) | **ITSAS**
Kupela (Epeleka eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdera (Maiz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kopas Jurberrak) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Añabiz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikoiak
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltzikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Trikitixa
Bexamelak eta pastela (Maizta ta bixar) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kopas Jurberrak) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxakano) | **ITSAS**
Kupela (Epeleka eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdera (Maiz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kopas Jurberrak) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Añabiz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikoiak
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

KURRI4 | **ADARIAK** | **MUSKARIA** | **EGUZKILORE1**

EH1 | **BABAK** | **KALABERA1** | **EGUZKILORE2**

BILBO | **BERAKATZAK** | **POPATK** | **EGUZKILORE3**

BILBO | **BERAKATZAK** | **POPATK** | **EGUZKILORE3**

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitseria bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
* Euskaltel deitu 900 94 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-er. / * Movistar: deitu 833-er.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com